

Kultura

Ekainean, Benito Lertxundiren kantekin osatutako hiru emanaldi eskainiko dituzte lurretako, Mallabiko eta Markinako haur eta gazte abeslariek > 13



Udalbatza berriak eratzeko, ekainaren 13ra begira

Maiatzaren 24ko hauteskunderen ostean, hurrengo hitzordua ekainaren 13an izango da, orduan eratuko dira eta udalbatzak. Bilkura horietan erabakiko dute udal hauteskunderetako emaitzek praktikan zer ondorio izango duten. > 2

AHTaren aurka mendi martxa eta ekitaldia egingo dituzte, bihar, Atxondon

Euskal Herriko hainbat eragilek deituta, AHTaren aurkako mendi martxa eta ekitaldia egingo dituzte, bihar, Atxondon. Hiriburuak salbu, Atxondo da obrarik gabeko herri bakarra. Espainiako Gobernuak Atxondo-Abadiño zatia lizitatu duela adierazi du aurren, udalak proiekturik ere ez dagoela ohartarazi duen arren. 2006an hasi ziren Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak AHTa eraikitzen, baina oraindik tunelaren amaierara heldu ezinik dabilen proiektua da. > 2



IKUSI ETA IKASI www.ikusi-eta-ikasi.com

UDAKO IKASTAROAK

UDALEKUAK INGELESEZ
Umeak: 6-10 urte bitartean.
Ekainak 29-uztaliak 30.
Jolasak, sortze-tallerrak, irteerak, antzerkia, storytelling eta askoz gehiago.
Golzez ala arratsaldean. Taldeko 5 partalde gutxienez.

LEHENENGO ASTEA DOAN!

FIRST CERTIFICATE IKASTARO TRINKOA (uztaliak 1-uztaliak 30) Golzez ala arratsaldean.
ESKOLARAKO LAGUNTZA (Bakarriko eskolak eta talde bakoitarrak) Bosgarren guttiak.

ZABALIK 2015-2016 KURTSORAKO MATRIKULA EPEA, INGELES ETA ALEMAN
ESKOLAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA ETA PSIKOHEZKUNTZA.

IKUSI
Kalebarria, 30 - Basua 2. Erk.
T 685 754 299 - 48200 DURANGO

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Durango > 9

Igerilekuetako taberna berriro jarriko du martxan udalak

Zornotza > 10

Herriar talde batek lokal bat okupatu du kulturgunea egiteko

Durangaldea > 3

Biriketako minbizia duten 100 gaixotik 5 erretzaile pasiboak dira

Iurreta > 12

Geu Be elkarteak Ezgaitasun Eguna antolatu du astebururako

Herririk herri

Umeen karate eta ninjutsu txapelketa egingo dute, bihar

ABADIÑO M.O.

Durangaldean karate eta ninjutsu arte martzialetan dabilzan umeen txapelketa egingo dute Abadiñon, bihar. Probalekuan ariko dira euren erakustaldiak egiten, 16:00etatik aurrera.

Abadiñoko Udalaren babesagaz antolatatu du Durango Wado Kan klubak txapelketa

Abadiñoko Udalaren babesagaz antolatatu du Durango Wado Kan klubak txapelketa. Ongizate fisikoa ez ezik, oreka psikologikoa lortzeko helburuagaz ere ibiltzen dira ekialdeko filosofian oinarrituriko arte martzial hauetan, eta, besteak beste, diziplina eta errespetua dituzte oinarri nagusizat.

100.000 euro jasoko ditu udalak basoak salduta

GARAI M.O.

Garaiko Udalak 100.000 euro jasoko ditu, Laixiar mendi inguruko hiru baso saltzeagatik. Horrela, hurrengo urteetarako udal aurrekontuak osatzeko ditu iturri sendo bat izango du udalak. Dagoeneko topatu dute eroslea: zerrategi bat, hain zuzen ere.

Salmentagatik jasotako diruaren %24 Bizkaiko Foru Aldundiari eman beharko diote garaitarrek, hobekuntzen poltsan sartzeko. Gero, diru hori herriko basoetan lanak egiteko erabiliko dute, Aldundiaren gestiopean.

AHTa: tunelaren amaierara heldu ezinik dabilen proiektua

AHTaren aurkako mendi martxa eta ekitaldia egingo dituzte bihar, Atxondon



AHTaren trenbideetako obrak. Lehior Elorriaga

DURANGALDEA M.O.

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektuak ez du sasoi ona bizi. Krisi ekonomikoak moteldu egin du obraren garapena, eta tren linea martxan jartzeko epea asko atzeratu da. Espainiako Gobernuak eman duen azkenengo data 2019koa da, baina, lanak nahiko aurreratu egon arren, ez da erraza izango oraindik geratzen den obra guztia hiru urte eta erdian egitea. 2006an hasi ziren AHTa egiteko obrak Lukun (Araba), eta tunelaren amaierara heldu ezinik dabilen proiektua da.

Gainera, AHTaren funtzioari eta errentagarritasunari buruzko zalantzak ugaritu egin dira azkenaldian. Espainiako Eko-

nomia Aplikatuaren Ikerketen Fundazioak landutako azterketa baten arabera, Espainiako Estatuan ez dago abiadura handiko linea errentagarrikerik, ez ekonomikoki, ez sozialki. Ibon Areso Bilboko alkateak ere errentagarritasun ekonomikoaren inguruan zalantza agertu du, garapenaren ikuspuntutik beharrezko ikusten duen arren. Bestalde, Germá Bel katedrati-ko katalanak berbaldia eman zuen Eusko Legebiltzarrean EH Bilduk eskatuta, eta AHTa "elitearentzako tren" izango dela adierazi zuen.

Izan ere, ez dago argi zein izango den bidaiaren prezioa, eta ezta iraupena zein izango den ere. Ana Pastor Espainia-

ko Sustapen ministroak esan du AHTaren abiadura ez dela aurreikusitakoa bezain arina izango, eta Bilbotik Donostiara joateko 55 minutu beharko direla azaldu du -hasieran baino ia hoge minutu gehiago-.

"Gelditu, orain"

Hori gutxi baliz, AHTaren aur-

kako mugimendu herritarra berpizten hasi da. Euskal Herriko hainbat eragilek *AHT gelditu orain!* manifestua zabaldu dute, eta mobilizazioak deitu dituzte hurrengo egunetarako. Deitzaileen artean daude AHT Gelditu Elkarlana, Ekologistak Martxan, Eguzki, Fracking Ez taldea, LAB, ESK, EHNE eta CNT. Bihar, Atxondo izango da AHTaren aurkarien bilgune. 10:00etan mendi martxa egingo dute, umeek zein helduek egiteko modukoa, eta AHTak herri-herri izango lukeen eragina ezagutuko dute. Izan ere, Atxondo da oraindik AHTaren obrarik ez duen herri bakarra, hiriburuez aparte. 15:00etan bazkaria izango dute, eta 17:00etarako ekitaldia iragarri dute. Biharko deialdiaz aparte, ekainaren 13an manifestazio nazionala egingo dute Donostian, 17:30ean, Alderdi Ederretik hasita.

AHTa, "erokeria"


Manifestuaren sinatzaileen arabera, AHTaren proiektua "erokeria" da, eta gelditzeko ordua heldu da: "Zenbat eta gehiago itxaron proiektu hau geldiarazteko, ezbehar ekologikoa are handiagoa izango da, eta galera ekonomikoak eta ondorio sozialak are sakonagoak".

DURANGALDEAN HASI BARIK DAUDEN OBREN EGOERA

Atxondo-Abadiño: 6,6 km. Espainiako Gobernuak lizitatu du, baina udalak dio ez dagoela amaierako proiekturik. 2007az geroztik, txostenei akatsak topatu dizkie udalak, eta egitasmoa trabatu du.

Elorrio-Elorrio: 2,9 km. Aurten lizitatu dute. Bergarako lotunearen barruan dago, Elorrio, Arrasate eta Bergara batzen dituen korapiloan. Bost tarte ditu, eta lau egiteko daude.

ABIADURA HANDIKO TRENAREN KRONOLOGIA



anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko maiatzaren 29a,
13. urtea - 591. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onandia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña,
Martxel Zubia Arrinda,
Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egizazu.

Laguntzaileak:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Biriketako minbizia duten 100 lagunetik 5 erretzaile pasiboak dira

Astlehenean, tabakoaren aurkako informazioa banatuko dute Durangon



Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea, Jesuitak ikastetxeko ikasleak eta Vicente Fernandez medikua.

DURANGALDEA M.O.

Tabakoaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da domekan, eta, horren harira, informazio eta gozoki banaketa egingo dute astlehenean, Durangoko Ezkurdin, Amankomunazgoko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuko kideek. Prentsaurrekoan, tabakoak osasunarengan daukan eragin kaltegarriaz ohartarazi du Vicente Fernan-

dez medikuak, baina ez erretzaileengan bakarrik, euren albokoengan ere bai. "Biriketako minbizia duten 100 lagunetik 90 erretzaileak dira, eta bost erretzaile pasiboak dira".

39k utzi dute tabakoa

Aurtengo ikasturtean tabakoa erretzeari uzteko ikastaroe-tan 63 lagun hasi ziren, eta 47k amaitu dute. Horietatik 39k lor-

tu dute tabakoa erretzeari uztea, Fernandezek esanetan.

Bestalde, ikastetxeetan ere prebentziorako berbaldi eta tailerrak egin dituzte. Lehen Hezkuntzako 362 umek eta Bigarren Hezkuntzako 534 gaztek jaso dute informazioa. Kerik Gabeko Gelak marrazki lehiaketa ere egin dute, eta Jesuitak ikastetxeko Gorka Rodriguezek eta Beñat Uriartek irabazi dute.

Landa garapen elkartearen estrategia berritzen dabilta

DURANGALDEA M.O.

Urkiola landa garapen elkarteak 2020ra bitartean eduki beharreko programa estrategikoa lantzen dabilta prozesu parte-hartzaile batez. Apirilaren 29an, esaterako, eskualdeko hainbat eragile-gaz mintegia egin zuten, eta, hortik, ondorioekin osatutako dokumentu bat sortu ere bai. Informazioa jaso edo ekarpenak egin gura dituenak jmtorika@urkiola.org helbide elektronikora idatzi behar du.

Plangintza estrategikoaren lanketan, baserritarrak protagonista izan behar direla da orain arteko ondorio nagusietako bat. Egitasmoak zehaztu aurretik, baserritarrei galde-tzea beharrezko ikusi dute. Bestalde, lurren erabilera zehaztu eta planifikatu behar dela nabarmendu dute, beti ere, nekazaritzarako lurak babestuta. Gazteak lehen sektorerara erakartzea eta turismo arloa zeharkako gai lez jorratzea ere proposatu dute prozesu parte-hartzaileko kideek.

LAB "kezkatuta" dago Mecánica Mallabiren egoeraz

MALLABIA Jone Guenetxea

LAB sindikatuak agerraldia egin zuen martitzenean, Mecánica Mallabi enpresaren egoera zein den azaltzeko. Sindikatuko kideen arabera, "Alfa taldearen egoera kezkarria da, baina bereziki Mecánica Mallabin bizi duten egoerak kezkatzen gaitu". Gaineratu dutenez, "kudeaketa txarraren ondorioz" azken lau urteetan enpresak "langileen erdia" galdu du. 2011n, 181 behargin zituen, eta, gaur egun, 86 dituela argitu du LABek. Era berean, urte hauetan enpresak makineria eta pertsonala Errumanian duen Rumagol enpresara eraman izana kritikatu du. "Kezkagarriena da Alfa taldeak ez duela apustu sendorik egin enpresa honen alde, eta gaur egun ez dugula plan industrial seriorik ezagutzen".

LABek aurreratu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz batzarrak egin nahi ditu, "enpresa honen etorkizunean inplikatu daitezten". Gainera, Alfa taldeari enpresarekiko konpromiso sendoa izan dezala exijitu dio.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

lanerako gertu!

20152016

Matrikula

uztailaren 16tik 21era

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 73 97 65

“Marokoren krudelkeriari makillajea kentzen diogu”

Equipo Mediaticoko kideek Mendebaldeko Sahara okupatuaz informatzen dute



Ahmed Ettanji, Elorrión, elkarrizketaren ostean.

ELORRIO Markel Onaindia Sarriago entzuten da Aljerian errefuxiatutako saharaiuen kasua, Sahara okupatuan daudenena baino. Bigarren horiek bizi duten blokeoaz berba egin du Ahmed Ettanji (Aaiun, 1989) Elorrión, Lajwadek, Portalekuak eta Euskal Fondoak gonbidatuta.

Zer da Equipo Mediatico? Equipo Mediaticon gazteak, preso politiko ohiak eta giza eskubideen aldeko kideak gaude. Gure helburua Mendebaldeko Saharako okupazio agintariak ezarritako blokeo informatiboa

haustea da. Gure lana manifestazio baketsuak eta bertako esku-hartze polizialak grabatzean oinarritzen da. Adibidez, kaletik ezin dugu grabatu, baina kamera frankotiratzaileak izaten ditugu, teilatuetan ezkutatuta, urrutitik grabatzeko. Buletin informatiboak ere idazten ditugu lau hizkuntzatan, mundu guztiak eza-gutu dezan han gertatzen dena. Bestalde, erresistentzia zibilaren garrantziaz jendea kontzientziaztea da gure lanaren atal bat. Lan horrek guztiak arrisku handia dakar; gure erakunde atxilotaketa ugari egon dira, mehatxuak, tratu txarrak, probokazioak...

Zure anaia ere atxilotu berri dute, ezta?

Bai. Dokumentu bat ateratzera joan zen, eta marokorrek probokatu eta atxilotu zuten. Hainbat orduz txarto tratatu zuten, eta nitaz galdetu zioten, nire kontak-tuez, gure ekintzen inguruan...

Zuen lana ez dute gustuko...

Gure lanak okupazio agintariak gogaitzen baditu, ondo egiten gabiltzalako dela uste dugu. Kazetari boluntarioak gara, erresistentzia zibilaren parte, eta Marokoren krudelkeriari makillajea kentzen diogu. Erakunde ilegala gara, autodeterminazio eskubi-

dearen aldeko erakunde guztiak bezala.

Zer egoera bizi duzue gaur egun Sahara okupatuan?

Lurralde okupatuetan erresistentzia zibil eta baketsua dago. Gure oinarritzko eskubideak aldarrikatzen gabiltza, autodeterminazio eskubideari indarra emanez. Ekintza politiko guztietan, jarduera polizial oso bortitzekin egiten dugu topo; torturak, atxilotaketa arbitrarioak, bortxaketak eta hilketak gaude. Gainera, Marokoko kartzeletan 50 preso politikotik gora gaude; urtebetetik biziarteko kartzelazigorak dauzkate, soilik Sahararen independentziaren eskubidea aldarrikatzearen.

Gora egin du presio zibilak?

1991n Frente Polisarioaren eta Marokoren artean su-etena sinatu zuten, eta erreferenduma egitea adostu zuten. Oraindik ez da erreferenduma egin, Marokok oztopo asko ipini dituelako. Orduan ere bazegoen erresistentzia baketsua, baina, gaur egun, indartu egin da. Teknologia eta sare sozialei esker, blokeo informatiboa apurtu ahal izan dugu.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Bide baketsuan sinisten dut, baina, nazioarteko komunitatearen isiltasun konplize eta luzearen ondorioz, gazte asko erradikalizatu egingo direla uste dut, Nazio Batuegan konfiantza galtzen dabiltzalako. Nazioarteko komunitateari egozten diot sortu ahal den kaosaren ardura.

Presoen aldeko martxan, Berrizko auzoak lotuko dituzte, bihar

BERRIZ Amaia Ugalde Auzorik auzo hamasei kilometroko ibilaldia egingo dute bihar; Berrizen, euskal presoen alde. 08:30ean irtengo dira Olakuetako plazatik, eta Berrizi bira emango diote auzoz auzo. Azken urteotan urtero antolatuta dute presoei elkartasuna adierazteko ibilbide bereziren bat.

Olakuetan irten, eta lehengo Murgoitio auzotik hasiko dute ibilbidea. Handik Okango auzorantz joko dute, eta, herrigunera sartu-irten bat egin eta gero, San Lorentzora joango dira. Andikoara joko dute handik, eta bertan hamaitaketa hartuko dute; txorizo egosia eta edaria. Eitua auzotik Olakuetara bueltatuko dira gero, hamasei kilometroko ibilbidea biribiltzera.

Herri ortuetan izena emateko aukera dago ekainaren 2ra arte

BERRIZ J.D.

Hilerriaren alboan, 50 metro karratuko 45 lursail atonduko dituzte, herritarrek baratzea lantzeko. Zozketa publiko bidez egingo dute lurren banaketa, eta, zozketan parte hartzeko, ekainaren 2ra arte eman daiteke izena udaletxean. Lursailak ekainaren erdialdean banatzea espero du Berrizko Udalak.

Gizarteko talde batzuek lehentasuna izango dute, eta lurak erreserbatuta egongo dira langabateentzat, jubilatuentzat, gizarte bazterketan daudenentzat, ikastetxeentzat eta desgaitasuna dutenentzat.

Erabilgarri dauden lursailak baino eskaera gehiago egoten bada, eskatzaileen poltsa sortuko dute, zozketan irtendako ordena jarraituta.

Kultur aniztasunaren aldeko jaia zapatuan

Kulturen arteko elkarbizitza sustatzea da helburua

OTXANDIO Joseba Derteano Zapatuan, kultura aniztasunaren aldeko jaia egingo dute Otxandion. Herrian dauden kulturen arteko harremanak sendotzea eta elkarkidetasuna sustatzea dira helburuak.

Goizetik arratsaldera askotariko ekintzak izango dituzte Otxandioko Udalaren, eta Gite-Ipes eta Bestealde elkarleen arteko elkarlanari esker. 12:00etan gaztetxoak izango dira protagonista. Munduan zehar hamaika

modu daude jolasteko. Hori-tako joko asko batu dituzte, eta umeei probatzeko aukera eskainiko diete udaletxe pareko plazan.

Ondoren, 13:00etan, munduko kultura askotako gastronomia probatzeko aukera egongo da plazan atonduetako postuetan. Ordu bererako, umeentzako ipuin kontalari saioa ere antolatu dute Andikona plazan. Horretaz gainera, goiz osoan gaiteroak, txistulariak eta tri-

kitilariak ibiliko dira herriko kaleetatik giroa alaitzen.

Arratsalderako, 18:30ean, La Pulga flamenko ikuskizuna antolatu dute Andikona plazan. Gitarra, perkusioa, dantza eta kantuek osatutako ikuskizuna da Askoa Etxebarrieta Lasheras flamenko dantzaria protagonista duena.

Azkenik, Urbiribil dultzaina taldeak eta Lagun Artean kantari taldeak herriko kaleetatik kalejira egingo dute.

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

LOREZAINZA

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

**GASOLINAZKO
MOTORDUN AITZURRA**



MOTOZERRA



AREA



**SASIAK GARBITZEKO
MAILU-MAKINA**



**ENBORRAK
ZATIKATZEKO
MAKINA**



ZULAGAILUA



**HOSTOENTZAKO
HAIZE-MAKINA**



**ADAR-
BIRRINTZAILEA**



BIOBIRRINGAILUA



Eitua industriagunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 946 824 550 • alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net





#M24durangaldea

Ekainaren 13ra begira daude Durangon eta Elorrion

Udalbatzak eratzeko batzarrean erabakiko dira gobernu taldeetako ordezkariak

DURANGALDEA J.D./A.B.

Martxoaren 24ko hauteskundeak pasata, hurrengo hitzordua ekainaren 13an izango da, orduan eratzeko direlako udalbatzak. Durangaldeari dagokionez, Durangon eta Elorrion daude zalantzarik handienak. Durangon, Aitziber Irigoras jeltzalearen proiektuak zortzi ordezkari eskuratu ditu, beraz, beste alderdiren baten babesa komeni zaio agintera heltzeko. Astlehenean emandako prentsaurrekoan, Irigorasek akordioetara heltzeko beharrari buruz berba egin zuen. Durangoko EH Bilduk, berriz, aritmetika zaila izango luke gobernura heltzeko. Izan ere, koalizioak ez ditu espero zituen emaitzak eskuratu. Hala ere, “ezkerreko soberanistok ordezkari batzuek bateratu batez inoiz izan dugun ordezkari zabalena izango dugu udaletxean”, adierazi dute koalizio kideek.



IDOIA BURUAGA

Elorrion, osterara, EH Bildu izan da bozkatuena, baina agintera heltzeko Herriaren Eskubi-

deak eskuratu duen zinegotziak du giltza. Idoia Buruagaren (EH Bildu) eta Joseba Mujikaren (EAJ) artean izango da lehia.

Podemos indartsu

Emaitzekin “pozik” agertu da Durangoko Herriaren Eskubidea, eta ez da gutxiagorako. Udal hauteskundeetara aurkeztu den lehenengo aldi honetan, hiru zinegotzi eskuratu ditu. Julian Ríos zerrendaburuaren arabera, “Durangoko herritarrek berba egin dute, eta aldaketa gura dutela esan dute”. Gainerako herrietan, Elorrioko Herriaren Eskubideak ordezkari bat izango du udalean. Zornotzako Hiri Ekimenak, berriz, bi zinegotzi izango ditu. Era berean, Zaldibarren Omnia talde independenteak ez du ordezkariarik lortu.

PSE-EEK behera egin du. Durangon, bi zinegotzigaz gelditu da. Pilar Ríos sozialistaren ustez, “indarragaz sartutako” talde politiko berriak zuzenean eragin du Durangon. “Herriaren Eskubideak hiru zinegotzi lortu ditu Durangon, eta, EAJk izan ezik, beste alderdiok zinegotzi bat galdu dugu. Lan asko egin dugu, eta hori ez da zinegotzi kopuruan ikusi. Hala ere, aniztasuna zabalagoa izango da”.

Iurretan, aurreko agintaldian bi zinegotzi zituen PSE-EEK, eta orain bakarragaz gelditu da. Ordezkari batzuek mantenduko du Zaldibarren eta Berrizen.

PPk ordezkari bakarra du Durangaldean, Durangoko Fran Garate. Garateren berbetan, “kolpe handia” izan da: “Agiar badago PPren irudi bat Estatu mailan, eta horrek eragin ahal izan du”.

Boto gutxigatik

Mallabian eta Mañarian, bozka gutxi batzuek erabaki dituzte hauteskundeetako emaitzak. Mañarian, boto biren aldeagaz



IGOR AGIRRE

ziurtatu du alkatetza EH Bilduk. Mallabian, berriz, hiru botoren aldeagatik EH Bilduk alkatetza galdu du. Orain arte zinegotzi izan den Igor Agirre jeltzalea izango da agintaldi honetan Mallabiko alkate.

Abadiñon Abadiñoko Independenteak taldeak eskuratu du boto gehien, eta Jose Luis Navarro zerrendaburuak emaitzen balorazio positiboa egin du.



Durangoko Herriaren Eskubideak Kalebarriko lokalean ezagutu zituen emaitzak.



EH Bilduko militanteak Alde Zaharreko lokalean.



EAJk, astlehenean, hauteskundeetako emaitzen balorazioa egin zuen.

Amankomunazgorako giltza Herriaren Eskubidearen esku?

Amankomunazgoan berdinketa egon daiteke EH Bilduren eta EAJren artean


ELORRIO Joseba Derteano Durangaldean boto kopuruan EAJ garaile izan den arren, Amankomunazgoaren eraketa antolatzeke legearen ondorioz, EH Bilduk ordezkari gehiago

ditu. EH Bilduk 13 ordezkari izango ditu, EAJk 11, Abadiñoko Independenteak taldeak 2 eta Durangoko Herriaren Eskubidea (Podemos) taldeak bat. Orain lau urte, Abadiño-

ko independenteek zituzten bi eserlekuak jeltzaleen esku utzi zituzten, Abadiñoko EAJk independenteen alkatetza babestearren truke. Berdinketara heldu ziren EH Bildu eta EAJ. PSE-EEko Fernando Castillo izan zen momentu hartan berdinketa hautsi zuena, eta EAJko Oskar Zarrabeitiaren alde egin zuen. Ikusteko dago, lau urte beranduago, EAJk eta Abadiñoko Independenteak taldeak akordioa mantenduko duten. Oraingo honetan, Herriaren Eskubideak izango luke Amankomunazgoko gobernura heltzeko giltza, aurreko aldirian sozialistek izan zuten bezala.



Agintaldi honetan, Amankomunazgoan egindako bilkura.



EAJ alderdi bozkatuena Durangaldean

BERRIZ J.D.

EAJ izan da Durangaldean 2015eko udal hauteskundeetako alderdi bozkatuena 14.787 botogaz. EH Bildu gertu izan

du, 13.763 botogaz. Durangon, Iurretan, Berrizen, Mallabian eta Zornotzan jeltzaleena izan da zerrenda bozkatuena. Podemos alderditik sortutako plataformek Durangon, Elorrion eta Zornotzan ordezkari izango dute. PPk galdu egin ditu Zaldibarren, Iurretan eta Elorrion zituen ordezkariak. PSE-EEK ere hainbat ordezkari galdu ditu.

#M24durangaldea



Ahal dugu hazi arazi herri garailea

Egunotan ez da beharrezkoa matematikaria izatea zenbakiak duten balioaz ohartzeko. Izan ere, dena da matematika. Kalkulu matematikoak, aritmetika eta aljebra, ekuazioak eta deribatuak, zer ez ote da izango alderdi politikoen mahai gainetan aspaldi honetan.

Matematikan zenbaki guztiak dira garrantzitsuak, finituak, arrazionalak, irrazionalak, osoak eta lehenak. Guztiek dute balioa eta zeregina, hauteskundeetako botoen antzera. Boto bakarra, bi edota hiru asko ez badira ere, euren balioa garrantzitsua da.

Boto bat: Boto bakarrarengatik zinegotzi bat dantzan egon zen Garain. Herri Taldearentzat bosgarrena edo EAJrentzat hirugarren zinegotzia ezbaian izan zen une batez. Bi boto: Mañarian bi botok berriz irabazle bihurtu zuten EH Bildu. Hiru boto: Mallabian, aldiz, hi-

ru bozka izan ziren EAJri alkatetza eman ziotenak eta aldaketa gauzatu zutenak udaletxean.

2015eko hauteskundeek, orokorrean, ez dute eskualdeko egoera politikoa hankaz gora jarri. Ez da tsunami ez lurrikara berezirik sumatu, eta paisaia, aurrekoarekin parekatuz gero, berdin samarra irudikatzen dugu. Herri handietan, Durangon, Iurretan eta Zornotzan, berriz izan da alderdi jeltzalea nagusi, EH Bilduk ez du lortu lehenestea, eta Ahal Dugu aukerarekin bat egiten duten herri mugimenduen presentziak moldea hartu du. Elorrioren azken urteotako lehia estua errepikatu da. Alderdi nagusi biak elkarren bueltan dabilta boto kopuruan, eta ez bata ez besteak ez diote abantaila handirik ateratzen elkarri. Abadiñon independenteen formulak jarraitzen du lehen postuan, eta Zaldibarren garaile izan da berrero herriekin elkarrekintza helburu izan duen hautagaia. Orokorrean, "zaharrak berri" erroan duen analisi honek baditu aurreko hauteskundeetatik alderatzen dituen adierazleak.



Uxue Martinez Mazaga
Soziologoa
GARAI

Biztanleria kopuru handiagoko herrietan, aurreko legegintzaldiko egoerak aurrera darrari, baina zertzelada berriekin: abstentzioa hazi egin da; EAJk hainbatetan bere posizioa indartu du; EH Bilduk bilakaera ezkorra izan du, Iurreta eta Elorrioren izan ezik; eta PP ia alderdi ikusezin bihurtu da.

Herri txikietan, aldiz, ezauzarriak ez dira berdintsuak. Lehia biziagoa izan da alkatetzarako bidean. Atxondon, Mallabian eta Mañarian lausotu egin da bi alderdi nagusien arteko aldea, eta irabazleei emaitzek erne egotera gonbidatzen diete.

Eskualdeko abstentzio handiena izan duen herrian (Izurtza) eta gutxien izan duenean (Garai) alderdi irabazleak (EH Bildu eta Herri Taldea) eta bigarrenak (EAJ) murriztu egin dute diferentzia.

Laburbilduz, aurreko lau urteetako kudeaketa ereduak aurrera egin du. Herri nagusietan egonkortu egin da alderdi irabazleen posizioa, eta txikietan aurreko legegintzaldiko ereduak galbahetik pasa dira.

Hori da zenbakien irakurketatik atera dezakeguna, baina politika matematikatik harago doa. Politikak baditu, besteak beste, kimika eta psikologia.

Kimikak bultzatzen gaitu hainbat aukeren artean bata edo bestea hautatzera. Eta hautagaiek *psikologia* beharrezkoa dute hauteskundearen emaitzek aditzera ematen dutena interpretatzeko.

2015eko udal hauteskundearen eskualdeko emaitzek agerian utzi dute hauteskunde garaiko lema, lelo eta marketinez jositako esaldiek ez dituztela herritarrek mugiarazten aldaketak gauzatzera. Hitz politen kimi-

kak ez du funtzionatu.

Bestalde, erabateko aldaketen aldeko aldarriek, gauzak beste modu batera egitera gonbidatzen gintuzten alderdiek ez dute behar den besteko indarririk batu aldaketa horiek gauzatzeko. Aldaketa nabarmenak baino, pauso txikiez egunero bidea egitea nahiago dugu, antza. Aldaketen aurrean erresistentziak badu oraindik gizartean pisua. *Psikologia* izanez gero, datozen lau urteotan kalean beharko lukete alderdi politikoen ordezkariak. Herritarrekin hartu-emanak estutzen, elkarriketa biziak sortzen. Ondokoei galdetzen zerk kezkatzen dituen eta erantzunak aintzat hartzen. Abstentzioaren aldeko herritarren ezaugarriak aztertzen, euren erabakiaren zergatia ulertzeko asmoz. Elkarrekintza bideratzeko formula berriak irudikatzen.

Alkate eta ordezkari kalezaleak behar ditugu, udaletxeko mahai atzean ostendu beharrean, herritarrekin batera eguneroko bizitza eraikitzen.

Horrela bai, horrela ahal dugu hazi arazi herri garailea.

Bizkaia maite...

Bizkaitarrek urte luzez Otxandiotik beherako lurraldeak espainiar nazionalisten gotorlekutzat hartu izan ohi dituzte mespretxuz eta harrotasunez; zer esanik ez Iruñetik beherakoak, bizkaitar gehienontzat guztiz ezezagunak direnak; horiek ez dira on Sabino Aranak asmatutako Euzkadiren imajinarioan sartzen. EAJk zikiratutako Euskal Herri menditsu baina baita lautadez jositako herri idor eta kontraesankor hori ere sinbolo folkloriko itxi batzuen inguruan ardaztu eta eraiki da gurean.

Agortua beharko lukeen imajinario horrek gure jendartea abertzaleen eta espainiar nazionalisten arteko antagonismo baten gatazkaren aurrean gaudela irudikatzen eraman gaitu. Zentzu horretan eta tamalez, Gure Esku Dago eta tankerako ekimen ezinbestekoek Nafarroan eta Araban giza eskubide funtsezko baten aldeko atxikimendua indartzeko balio izan badute ere, agian Bizkaian eta Durangaldean EAJri interesatzen zaion abertzaleen fronte folklorikoaren iruditegi zahar-

tu eta tranpatia elikatzeke balio izan diote, helburua abertzaleen batasuna dela irudikatuz. Eta badirudi agortutako imajinario hori hauspotzen duten ekimenik eratu aurretik, beste antagonismo bat indartu behar dela lehenik: gizartearen ohiturak aldatzeko inongo asmorik ez duen alderdi kontserbadore baten eta proiektu eraldatzaile bat gorpuztu nahi duten herri mugimendu zein alderdien artekoa. Ardatz identitarioa alboratu, eta Bizkaiari proiektu erakargarri bat eskainiko dion mugimendua izan behar du, identitate anitzekoa, zabala eta herrian errotutakoa.

EAJ ez da alderdi klasiko bat; momentuan momentuko jendartearen joera ideologiko nagusiak kudeatzen dituen sare gisako bat izanik, jendartearen joera eta instintu kontserbadoreekin bat egiten duen alderdi praktikoa eta hiperpragmatikoa bat da. Ez da konplikatzeko. Jendarteak kasuan-kasuan islatzen dituen joerak kudeatzera mugatzen den ondo engranatuak eta Bizkaiko txoko guztietan errotutako enpresari, lagun, jauntxo, komunikabide, bezero eta abarren sare indartsua da. Besteok gara jendearekin borrokatu behar dugunak, ga-



Andoni Olariaga
Filosofian lizentziatua
BERRIZ

raipenak jendearekin eta jendearen kontra eginez lortzera behartuta gaudenak. Alderdi jeltzalearen egitekoa ondoren etortzen da beti, gure garaipenak zein porrotak kudeatzera. Horregatik, EAJri aurre egitea gure jendartearen pentsamendu hegemonikoari kontra egitea bezalakoa da askotan, pareta baten kontra jardutearen modukoa.

Durangaldean, ordea, gauzak aldatuz joan dira azken hamarkadan. EAJren eta EH Bilduren lehia asko berdindu da urteotan. Esan daiteke Bizkaian eskualde hau dela EAJri gehiengo instituzionala kolokan jartzen dion bakarrenetakoa (Lea-Artibai eta besteren

bat ahaztu gabe). Elorrioren, Izurtzan, Atxondon, Otxandion eta Zaldibarren EH Bilduk irabazi du; Berrizen, Zornotzan, Mallabian, Iurretan eta Durangon EAJk; eta Abadiñon, berriz, "independentee" irabazi dute. Lehia oso parekatua da, baina jeltzaleek betiko indarrari eusteko gaitasuna erakutsi dute, eta EH Bilduk oro har behera egin du.

Bizkaian oso errotuta daude hainbat tradizio eta ideia kontserbadore, EAJk ederki kudeatzen dituenak. Eta, nire ustez, ideologia horren gakoak eta iruditeria ez badira analizatzen, eta handik abiatuta jendartearen pentsamendua eraldatzen saiatzen, ilusio hutsa da noizbait EAJri Durangaldean (eta Bizkaian oro har) pulstu instituzional hutesze garaituko zaiola pentsatzea. Horregatik, behera egin duen herrietan, EH Bilduk bere buruari begiratu beharko lioke, kanpo faktoreei beharrean, galeraren arrazoia aurkitzeko. Gaizki egindakoak kanpo faktoreekin ezkutatzea akats infantilean erortzea litzateke.

Herri batzuetan injustua irudituko zaien arren (ordainsaririk izan ez duen eta isilarazia izan den lan eskerga egin dutelako), autokritika da Duran-

galdean proiektu eraldatzailea proposatzen dutenen posizioa indartzeko modu bakarra. Autokritika horretan bi puntu azpimarratuko nituzke oroz gain. Batetik, EH Bilduren alderdi batuketaren eredu agortuta dagoela azpimarratu behar da. Edo benetako herritarren parte hartze zabalarekin herritar fronte bat osatzeko bidea abiatzen du koalizio independentistak (Elorrioren eredu bat izan daiteke, esaterako), edo are indar gehiago galtzen jarraituko du hurrengo bozetan. Eta, bestetik, ezker abertzaleari hainbat inertzia zaharrekin apurtzeko ordua iritsi zaiola iruditzen zait; pankartaren atzean inongo eraginkortasunik gabe esentziak gordetzera mugatzen den ezker abertzale jakin bati, zorionez gehiengo ez den horri, albo batera egiteko garaia iritsi zaio. EH Bilduk askotariko jendea erakartzen duen herritarren fronte zabal bilakatu behar du, gazteei lekua egingo diona, herritarrengan ilusioa piztuko duena, ez arrotasuna, ezta urruntasuna ere. Hurrengo lau urteak abagune ezin hobea izango dira autokritika egin eta herritarren fronte hori zabaldu, koloreztatu eta indartzeko.



#M24durangaldea

Lubakietatik, kalera, plazara, zelaira...

Iritsi ziren hauteskundeak. Sartu ginen lubakietan. Jaurti ki genizkion aurrekoari birao, kritika, salaketak. Joan dira hauteskundeak. Atera gara lubakietatik. Kamustu ditugu ez-pata eta geziak.

Etorriko dira beste hauteskunde batzuk berandu baino lehen eta, atzera, egingo ditugu lubaki berriak, aurpegiratuko kritika zorrotzak, esango irain mingarriak. Hauteskundeek berezko ezaugarri dute ideiak, proiektuak, egiteko moduak eta estiloak aurrez aurre jar-tzea eta berezko ezaugarri dute, herri honetan bederen, alderdi politikoak, buruzagiak, era-kundeak eta herritarrak bando ezberdinetan jartzea eta etsai bihurtzea.

Baina gurean badakigu bes-telako borrokak ere egiten; kon-frontaziotik urrun, elkarren ondoan, lubakietatik kanpo, plaza eta kale zabaletan.

Eta borroka horietan herritarrak ez gara ikusle hutsak. Borroka horietan, herritarrak protagonistak gara. Ez gara alderdien txontxongilo. Halakoetan alderdi eta erakundeen aurretik jartzen badakigu, gizarteko al-daketak eragiten badakigu.

Herritarrok badakigu kultu-ra, hezkuntza, euskara edo beste oinarritzko eskubideen aldeko egitasmoetan elkarren ondoan lan egiten. Banatzen gaituena alde batera utzi, eta batzen gaituena lehentasuna emanaz lortu ditugu hainbat helburu. Urrutira joan gabe, horren adibide garbi batzuk ditugu ingu-ruan.

Hortxe dago Plateruena Kafe Antzokia, kultur egitasmo her-ritarra. Berriki elkarte, alderdi politiko, erakunde eta herrita-



Nerea Iriarte Okifiena

Kazetaria
DURANGO

rren laguntzaz aurrera egiteko behar zuen babesa lortu du.

Beste adibide bat Ibilaldia da. Urtebete barru, ikastolen aldeko festa ospatuko dugu Duran-gon, Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolek antolatuta. Ikastolen aldeko ospakizuna ez ezik, Du-rangorentzat egun handia izan-go da. Eta hitzordu horretan ere guraso, irakasle, ikasle eta gai-nontzeko durangar eta bizkaitarrek eskutik helduta egingo dute aurrera, hutsik egin barik. Bada berehala ekin beharreko

beste erronka bat. Ekainaren 21ean, erabakitzeko eskubidearen aldeko ospakizun handia egingo da Euskal Herrian Gure Esku Dago dinamikaren esku-tik.

Bizkaian San Mames, Gipuzkoan Anoeta, Araban Buesa Arena eta Iruñean zezen plaza eskubide horren aldeko boron-datez betetzea da helburu.

Egitasmo honetan ere aurre-ko adibideetan bezala ez dira lubakiak egongo, ez bandoak, ez eta barrikadak ere. Batzen gaituena banatzen gaituena ginetik jarriko dugu ekainaren 21ean.

Eta erabakitzeko eskubideak batzen gaitu. Denok dugu zer esan horren inguruan, denok dugu zer erabaki. Herri libre bat nahi dutenek hori aldarrikatze-ko eskubidea dute, beste herri baten parte izaten segi nahi dutenek ere ozen esan dezakete. Eta aurreko adibideetan bezala Gure Esku Dagoren ekimenetan

ere herritarrak dira protago-nista. Hauteskunde deialdietan ez bezala, orainoan, alderdiek ez dizkigute beharrak egingo, herritarrok izan behar dugu ekimena, gu izan behar gara bul-tzatzaile eta arima.

Horrelako erronkek lana eskatzen dutela, ahalegina, den-bora eskatzen dutela eta ilusioa. Eta eskuak behar ditugu, lane-rako prest dauden eskuak.

Iaz, ekainaren 8an, giza katea osatu genuenean denok sentitu ginen garaile, apur bat bederen. Norberak borrokatutako erron-ketan garaipenak askoz ere zapore gozoagoa du. Denen ga-raipena norberarena ere badela-ko. Banatzen gaituena bigarren mailan uzteko gai izan garelako, batzen gaituena lehenetsiz.

Lubakietatik ateratzeko au-keru ematen digulako eta kale, plaza, saskibaloi kantxa edo futbol zelaietan gure nahia aske oihukatzen dugulako. Merez du erronkak.

Hauteskundeen inguruan hainbat gogoeta orokor

2015eko hauteskunde hauek oso adierazgarriak izan dira sozio-logia politikoaren ikuspegitik ikusita, eta, zentzu horretan, Durangaldeko emaitzetatik har-ratago ideia nagusi batzuk zue-kin partekatzea gustatuko litzai-dake. Lehenengo eta behin, esan beharra dago Bizkaian kontuak nahiko garbi daudela. EAJren nagusitasuna erabatekoa da, baita Ezkerraldean ere. Horrek ez du esan nahi, lehen pentsa-zen genuen moduan, alderdi jeltzalea alderdi bizkaitarra denik, Araban eta Gipuzkoan ere irabazi baitu, eta Nafarroan Uxue Barkosen eskutik aukera guztiak ditu estreinakoz erkide foraleko agintaritzan lortzeko abertzale eta aurrerakoiek in-itunak eginez.

EH Bilduren emaitzak ez dira koalizio abertzale eta ez-kertiarrak izan zitzakeen one-nak, baina 300.000 bozka baino gehiago atera ditu eta horrek izugarritzko oinarria ematen dio etorkizunari aurre egin ahal izateko. Gertatu zaiona da duela lau urte arazo askoren gainetik lortu zuen bozka kopurua ika-ragarria izan zela eta hori man-tenzea oso zaila zen hainbat faktorerengatik. Esaterako, Gi-puzkoan egin izan den boterea-ren kudeaketari gerri politikoa falta izan zaio. Hainbat jenderen pertzepzioa izan da zaborren inguruko gatazkak izugarritzko mina egin diola EH Bilduri, afe-ra hori koalizioaren kudeaketa "harroputzarekin" lotuz.

Beste egitasmo estrategiko batzuetan ere, EH Bilduk ez du jarrera eraginkorrik izan. Eta bakardade horrek argazki zuri-beltza proiektatu du hain-bat sektorerengan (esaterako, Donostia 2016 apustua edota



Aitor Aurrekoetxea Jiménez

EHUko Filosofia irakaslea
DURANGO

Tabakaleraren kasua). Hala eta guztiz, EH Bilduk daukan arazo handiena ez da kudeaketarena, ezta Podemos agertu izana ere, baizik eta beste bat, eta, nire ustez, askoz serioagoa: alegia, bera irabazteko zorian dagoe-nean, EAJk moderaziotik eta alderdi konstituzionalistetatik bozka nahikoa jasotzen duela hori gerta ez dadin.

Hori da nire uste apalean EH Bilduk daukan eta izango duen erronkarik handiena, hau da,-

zelan gaintitu hainbat biztanle-engan sortarazten duen irudi ez-erakargarria.

Horren adibide paradigma-tikoa Durangon gertatzen dena izan daiteke, non EH Bilduk izugarritzko atxikimendua lortzen duen, baina EAJk askoz gehiago, beste alderdi batzuk desagertarazteraino. Hori kro-nikoa bihurtzen bada, *sorpasso* ezinezkoa deitu ahal izango genuke.

Azken finean, EAJk bene-tako transbertsalitatea lortzen du (abertzale eta abertzale ez direnen bozkak lortzen ditu) eta baita zentralitatea ere (edo-zeinekin itunak egiteko aukera izatea) eta horixe izango litzate-ke EH Bilduren arazo nagusia.

Gainontzeko alderdiek emai-tza eskasak izan dituzte, Pode-mosek izan ezik. Podemosek 148.000 boto izan ditu Hego Eus-kal Herrian, eta hori ez da txiki-keria. Hala eta guztiz ere, bozka horiek jatorri ezberdina dute,

eta nolabait krisiarekin txarto pasatu duten pertsonenak dira. Ikustear dago zelan kontentatu-ko dituzten hainbeste sentsibili-tate anitz.

Bukatzeo, Nafarroako hau-teskundeen inguruan inon irakurri ez dudatu datu bat mahai-gaineratzea gustatuko litzaidake. Egia da aldatetaren aldeko indarrek (Geroa Baik, EH Bil-duk, Podemosek eta IUk) Nafa-rrako Parlamentuan 26 eser-leku atera dituztela, eta horrek izugarri poztu nau. Baina esan beharra dago 300 boto ziztrinengatik Ciudadanos alderdiak ez diola Geroa Bairi bederatziz garrren eserlekua kendu, eta hori horrela balitz, erregimenaren aldeko alderdiek nagusitasuna izango lukete; eta, ondorioz, ez litzateke aldatetarik izango.

Hauskortasun horrek era-man behar gaitu Nafarroan aldaketa patxadaz eta inteli-gentziaz egitera, aldaketa hori iraunkorra izan dadin.

MIKEL ANTZA
ametsak ere zain

Errezitaldia
Hitz liburu dendan,
ekainaren 4an, eguena,
19:00etan.

Ahotsa eta musika:
Josu Landa
Gotzon Barandiaran
Itziar Castrillo

DOAN

hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

LAN ESKAINTZA
Plateruena Kafe Antzokiak kudeatzaile lanpostua eskaintzen du

ESKATZEN DA:

- Enpresa zuzendaritzan, Ekonomian edo antzekoetan lizentziatua izatea.
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan: antolakuntza, koordi-nazioa, kontrola, giza baliabi-deen kudeaketa...
- Izaera aldetik: jarrera kon-prometitua, izaera planifi-katua eta dinamikoa, eta jendaurreko harremanetarako gaitasuna izatea.
- Taldean lan egiteko eta

taldea gidatzeko gaitasuna izatea.

- Euskara maila ona izatea ahoz zein idatziz.
- Ofimatika ezagutzak izatea.
- Gidabaimena eta autoa iza-tea.

BALORATUKO DA:

- Ostalaritza ezagutzea.
- Durangaldeko kultur bizitza ezagutzea.
- Gizarte mugimenduetan es-karmentua izatea.
- Komunikazio tresnak

erabiltzen jakitea.

- Irudi eta bideo ediziorako programak erabiltzen jakitea.

ESKAINTZEN DA:

- Lan kontratua, jardun osoan.
- Hasteko aurreikusitako data: 2015eko uztaila.

Curriculumak bidaltzeko: zuzendaritza@plateruena.net

Epea: 2015/06/07
Beharrezkotzat jotzen bada, hautatzeko probak egingo dira.

Igerilekuetako taberna berriro martxan ipiniko du udalak

Otsailean polemika piztu zen, Dendak Bai elkarteak taberna itxi zuenean



LAB sindikatuak protesta egin zuen Landakoko taberna itxi zenean.

DURANGO Markel Onaindia Landakoko igerilekuetako taberna berriro martxan ipiniko du udalak. Otsailean polemika piztu zen, taberna behar baino lehenago itxi zutelako. LABek protesta egin zuen, beharginak azken hil bietan kobratu barik zeudelako, eta taberna "txarto gestionatu" zela kritikatu zuen. Udalaren "utzikeria" salatu zuen, eta Dendak Bai elkarteak jo zuen kudeaketaren errudun.

Izan ere, Dendak Bai elkarteagaz hitzarmena sinatu zuen udalak 2013an, elkarteak Landako eta Tabirako tabernak kudeatzeko. Lan barik zeuden herritarrek kontratatzea zen helburu soziala. Dendak Bai enpresa bat sortu zuen horretarako, baina adierazi zuen 2014 amaieratik defizit egoeran zegoela, eta horregatik itxi behar izan zuela Landakoko taberna behar baino lehenago. LABek

eskaera bi egin zituen protestetan: zerbitzua berriro ez azpi-kontratatzea eta udalak behargin horiek kontratatzea.

Bada, udalak hasi du bi tabernen lizitazio prozesua, eta eskaerak egin ahal dira udal-etxean. Tabernak kudeatuko dituen enpresak hainbat puntu hartu beharko ditu kontuan: genero ikuspegia, euskararen erabilera eta *zero zabor* filosofiaren arabera lan egitea, adibidez.

Fumbarriko silikosi kasuak manifestazioan salatuko dituzte

DURANGO M.O.

Manifestaziora deitu du LAB sindikatuak ekainaren 6rako, Fumbarri galdategian agertutako silikosi kasuak salatuzko. 12:30ean hasiko da protesta, enpresaren paretik. LABek prentsaurreko bidez azaldu duenez, Fumbarri 2011n eduki zuten lehenengo silikosi kasuaren berri, eta gaur egun hamaika dira gaixorik dauden beharginak. Beraz, langileen %10 daude gaixorik. LABek enpresa kritikatu du: "Ez du erantzukizunez jokatu; silikosi ez dela horren larria ere esan izan du". Osalanen aholkuak ez jarraitzea ere kritikatu dio sindikatuak enpresari.

Kanpaina

LABek ohartarazi du Fumbarrikoa ez dela kasu isolatu bat, Euskal Herriko beste leku batzuetan ere agertu direla kasuak. Horregatik, kanpaina bat martxan jartzea erabaki du. Horren harira egin dute Durangoko manifestaziorako deialdia.

Udalaren inkestan parte hartzeko eskatu die Herriak auzotarrei

DURANGO M.O.

Durangoko Udalak inkesta bat banatu du, etxerik etxe, Aramotz auzunearen inguruetan, etorkizunerako aurreikusita dagoen gizarte etxearen inguruan galdetzeko. Hiltegia zegoen lekuan eraikiko litzateke gizarte etxea, udala eta Herria auzo elkarteak adostutakoaren arabera. Hain zuzen ere, Herria elkarteak udalaren inkestan parte hartzeko deia egin die auzotarrei, eta prentsa oharra bidali du deia indartzeko.

Durangoko Udalak inkesta bat banatu du, etxerik etxe, Aramotz auzunearen inguruetan

Oharraren arabera, udalak eta herriak uste dute ezinbestekoa dela herritarren partaidetza. "Bizilagunek eskatutako zerbitzuak jasoko dituen gizarte etxea martxan jartzeko balio behar du".

Aurkitu zure diamanteak Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangalde erdi-erdian, geure bezeroei hurrengo zerbitzuak eskaintzen daramagu:

- Ibilgailu berriak eta bigarren eskukoak
- Mekanika eta karrozerian autoetarako osoko tailer-zerbitzua



AGUINAGA TALDEA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
 info@aguinaga.es info@mitsubishibizkaia.com
 www.aguinaga.es www.mitsubishibizkaia.com

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3
 48340 ZORNOTZA
 Tel.: 94 630 17 47

Zapatuan lokal bat okupatu zutenen aurkako salaketa ipini du jabeak

Okupatzaileek batzar bat egingo dute egoeraren aurrean zer egin erabakitzeko

ZORNOTZA J. Derteano

Joan zen zapatuan, Luis Urrengoetxea kaleko lokal bat okupatu zuten hogeitazortzazuzen. Kultura alternatiboa eskaintzeko gune bat eraikitzea dute helburu. Baina lokala pribatua da, eta jabeak salaketa jarri zuen eguaztenean.

Egun bereko iluntzean, “erztatzen lokalera joan ziren, barruan zeuden pertsona bi identifikatu zituzten, eta salaketaren berri eman zieten”, Xabi Gutierrez mugimenduko kidee-

tako batek azaldu duenez. Orain epaileak erabakiko du aurrera begirako prozedura, eta azken helburua lokala hustea da. Bitartean, okupatzaileek batzar bat egingo dute, egoera honen aurrean zer egin erabakitzeko.

Saso batean taberna bat izan zen lokal hori, eta hamar urtetik gora hutsik zeramatzan. Okupatzaileek lokal hutsari erabilera publikoa ematea dute helburu: “Etxe hutsen aurrean okupazioa zilegia dela uste dugu. Ezin dugu herrian hainbeste lokal

eduki hutsik”, azaldu du Gutierrezek. Kultura alternatiboa eskaini gura dute bertan: “Gune aske bat izango da, mundu guztiari zabalik egongo dena. Antzerkia, musika, ikastaroak, umeentzako ekintzak... Beste modu batean antolatzea da asmoa, kapitala edo dirua oinarri ez duen eredu batez”.

Okupazioaren ostean inguruko auzokide eta saltokiei ekimenaren berri eman zieten. “ahalik eragozpen gutxien eragiten” saiatuko direla adieraziz.



Luis Urrengoetxea kalean dago okupatutako lokala.

Azoka solidarioa gaurtik domekara 40 postugaz

ZORNOTZA J.D.

Gaurtik domekara Erdi Aroko azoka egongo da udalaldeko plazaan, La Otra Mirada elkarteak antolatuta. Batutako dirua beharrezana daukaten laguntzeko abian dituzten proiektuetarako izango da.

Gaur, 19:00etan, inauguratuko dute azoka Zornotzako batukada taldearen laguntzagaz. Zapatuan eta domekan, 11:00etatik gauerdia arte egongo da zabalik. Askotariko postuak egongo dira; esaterako, mago batek, bere produktuak saltzeaz gainera, magia tailer bat eskainiko du. Beste stand batean, berriz, batutako dirua Stop Sanfilippo elkartearentzat izango da.

Pintxo txapelketa hasiko dute eguaztenean

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako tabernetan pintxorik pintxo ibiltzeko aukera egongo da ekainaren 3ko eguaztenez hurrengo domekara. Egun horien barruan Zornotzako Jan Alai pintxo txapelketaren laugarren aldia egingo dute. Aurreko hiru aldietan arrakasta handia izan duen txapelketa da. Zornotzako 54 tabernekin euren pintxorik onenak lehiaketara aterako dituzte eta herritarrek pintxoak probatu eta gehien gustatu zaizkienak bozkatzeko aukera izango dute. Eguaztenean 19:00etatik 22:00etara egingo dute lehiaketa; barikutik zaptura goiz zein arratsalde eta domekan eguerdira arte.

Musika eskola berriko proiektua aurkeztu dute

Javier de las Heras Solé arkitektoarena da



Javier de las Heras Solé arkitektoa, epaimahaikideak eta udal ordezkariak.

ZORNOTZA J.D./I.E.

Javier de las Heras Solé arkitektoa katalanak aurkeztu duen proiektua hautatu dute Zubiaur musika eskolaren eraikin berria sortzeko Zornotzako Udalak deitu duen ideia lehiaketan.

Eider Galarza eta Jorge Mallagarai arkitekto eta epaimahaikideek lehiaketara aurkeztu diren 39 proiektuen artean De las Heras Solerena hautatzea eraman dituzten arrazoiak zeintzuk izan diren azaldu dituzte. Izaera bereziko eraikina izango den arren, eraikuntza berriak aldameneko Zelaieta zentroagaz sortuko duen batasuna azpimarratu dute epaimahaikideek. “Funtzionalitatea eta xarma berezia uztartzen” dituen eraikina dela nabarmendu du Galarza udal arkitektoak, eta Txiki Otaegi kaletik izango duen sarreragaz “herria egituratzen” lagunduko duen eraikina izango dela az-

pimarratu du Mallagarai epaimahaikideak.

“Gure arloan gauzak dauden moduan egonda, eskertzekoa da arkitekturaren arloko lehiaketa irekiak antolatzen jarraitzea”, adierazi du Javier de las Heras Solé arkitektoak bere aurkezpenean. “Ilusio handia egiten dit Zornotzara lan hau garatzera etorri ahal izateak”, gehitu du.

Hiru solairu izango ditu musika eskolaren eraikin berriak, dena mila metro koadroko azalerakoa. Arkitektoak azaldu duenez, “beheko solairua musika eskolaren eta kalearen loturarako espazioa izango da: bertan egongo dira liburutegia eta administrazioa, eta baita Zelaieta zentroaren eta eraikin berriaren arteko patio bat ere”. Bigarren solairuan atonduko dute areto nagusia, eta espazio zabal eta argitsuetan kokatuko dituzte musika eskolako 450 ikasle hartuko dituzten ikasgelak.

Medikazioen inguruko hitzaldia eguaztenean

IZURTZA J.D.

Datorren eguaztenean, medikazioen inguruko gomendioak emango dituen hitzaldia eskainiko dute Erdoitzako Ama nagusien elkartearen lokalean. Gaian aditua den Begoña Olabarrieta izango da hizlaria 17:00etatik aurrera.

Medikazioen eta automedikatzeko dauden joeren inguruan jardungo du Olabarrietak. Automedikazioak izan ditzakeen arriskuen inguruan ohartaraziko du, eta zein kasutan den gomengarria eta zeinetan ez azalduko du. Horretaz gainera, medikamentu generikoak hartzerako orduan kontuan hartu beharreko gakoak zeintzuk diren aipatuko ditu.

Launa upategira irteera egingo dute Mañaritik

MAÑARIA M. Onaindia

Bihar, maiatzak 30, Launa upategira irteera egingo dute Mañaritik, Jai Batzordeak antolatuta. Lehenengo Bastidara (Araba) joango dira, eta triki-poteoa egingo dute bertan; horren ostean egingo dute upategira txangoa. Han, bisita gidatua eta bazkaria izango dituzte itxaroten. Gero, 21:00etan bueltatuko dira herrira. 40 euro balio du irteerak.

Mañariarrek nazioartean izena hartu duen ardoa probatu ahal izango dute, gainera. Izan ere, Launa upategikoek bost sari jaso dituzte mundu mailako Catavinum txapelketan, eurek sortutako bost ardo-rengatik.

Indarkeria mota guztiei aurre egiteko ikastaroa

ATXONDO J.D.

Zapatuan, autodefentsa feminista ikastaroa eskainiko dute Axpeko Biezko landetxean. Egun osoa izango da, goizetik iluntzera. Amaia Lekunberri markinarrak emango du ikastaroa. Besteak beste, Durangoko Andragunean jasotako saiokin prestatu da. Ikastaroa ez da eraso fisikoei aurre egiteko mugimenduetara mugatuko: “Hori icebergaren tontorrean geratzea da”, dio. Ohiko bizitzan emakumeak pairatzen dituen indarkeria mota guztiei aurre egiteko mekanismoak jorratzea da ikastaroaren xedea. Izen-ematea 18 euro da, eta 635 720 048 telefonon egin daiteke.

Liburutegiaren 5. urteurrena ospatuko dute

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Zaldibarko liburutegiaren bosgarren urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia antolatu dute ekainaren 5erako. Datorren barikuan, Liburu Sorpresaren Azoka deitu dutena egingo dute. Liburutegiaren urteurrena ospatzeko atera dituzten kamisetetako bat erosten duenak liburu bat jasoko du opari, eta, egunaren amaieran, argazki bat egingo dute denek liburutegian, kamiseta jantzita.

2010. urteko apirilaren 23an egin zuten liburutegi berriaren inaugurazioa, Liburuaren Nazioarteko Egunean. 700 bazkide zeuzkan liburutegiak egoitza berria zabaldu zutenean, eta ia 1.300 dauzka gaur egun.

clagoeneko
% 80
batina gehiago
saldutua

azken aukerak ez galdu

ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuenaren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguniak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvias.es Sabadell Guipuzcoano **BS**

946 46 20 41
www.sukia.com

sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa

Geu Be elkarteak ezgaitasunera hurbiltzeko gonbita luzatu du

Durangaldeko Ezgaitasun Egunak hainbat ekintza batuko ditu Iurretan

IURRETA Aitziber Basauri Durangaldeko Ezgaitasun Eguna antolatuta dute biharko Geu Be, ONCE, Río de Oro eta ASEBI elkarteek Iurretako Udalgaz batera. Bederatzigarren aldian, Mikel Deuna dantza taldea, Kimuak elkarte, Inurri eskaut taldea, Gurutze Gorria, bertso eskola eta HEKI herri kirol taldea izan dituzte lagun.

Hainbat ikuspuntutatik ezgaitasunera hurbiltzeko aukera emateko, egitarau zabala presatatu dute. Izan ere, oso garrantzitsua da “heziketara eta sentsibilizazioan lan egitea mundu

hobe bat lortzeko”. Geu Bekoen berbetan, “ezgaitasuna duten pertsonak ez dira hitz teknikoak soilik (Downen sindromea, autismoa...), izen-abizenak dituzte; pertsona normalak direla ikustean ez dira horren desberdinak”. Orain arteko harrera ona azpimarratu dute, eta parte hartzeko gonbita luzatu. Jarduneko alkate Iñaki Totorikaguenak taldearen lana goratu du.

Bestalde, Geu Beren adimen aniztasuna duten pertsonentzako aisialdi inklusiboan lantzen duen proiektua lagunduko du Caixak 19.200 euroguz.

Maiatzak 30, zapatua

- **11:00etan**, txikientzat tailer eta jolasak Askondon: zirkuitu egokituak (herri kirolak ere egongo dira).
- **13:00etan**, Mikel Deuna dantza taldea.
- **13:30ean**, magia saioa.
- **14:00etan**, herri bazkaria: (txartelak 6 euroan, Iurretan). Postre lehiaketa (arauak: geube.kzcomunidades.net/ facebook webgunean)
- **16:00etan**, erromeria Lotxo taldegaz.
- **19:00etan**, bertso-poteoa.
- **21:00etan**, Errege Kopako finala.



Antolakuntzan lagundu dutenei eskerrak eman dizkiete Geu Be elkarteak Alex Villanuevak, Saioa Ortizek eta Jon Guerrerok.

Sukaldaritza tailerra, ume eta gazteentzako kultur astean

IURRETA A.B.

Prest dute dagoeneko Iurretako ume eta gazteentzako kultur astea. Ekainaren 22tik 26ra izango diren jarduerak sukaldaritza tailerra ere batuko dute aurten. Hori da nobedadea 4 urtetik 14 urterako gaztetxoei zuzendutako eskaintzan: akrobazia, txiki-txef eta arte eszeniko tailerrak eskainiko dituzte. Ibarretxe kultur etxean edo kultur-etxea@iurreta.net helbide elektronikoaren bidez eman ahal da izena, ekainaren 5era arte. Hala ere, edonor sartu daiteke kultur etxean egokitutako ludotekan eta terrazan.

Egunero, 10:00etatik 13:00era jokoak –monopolia eta puzzleak, adibidez– eta irakurketak materiala –egunkariak, liburuak eta aldizkariak, esaterako– jarriko dituzte eskura. Txikientzat ere egokituko dute gunea, eta nagusi batek lagunduta egongo dira.

Elkartekin batera

Euskararen erabilera, birziklapena eta inguruarekiko errespetua sustatu gura dituzte aisialdian. Anderebide, Gertasport, Kimuak, L'atelier eta Ortzadar taldeen laguntza izan dute kultur etxea artearen, sukaldaritza eta kirolaren erakustoki bihurtzeko. Eguraldiak lagunduz gero, terraza eta jokoen mailegua uztailean ere mantenduko dute.

> DURANGALDEA ASTEON

Merkataritza librea eztabaidagai

ELORRIO > Kainaberak eta Elorrixak antolatuta, AEBak eta Europako Batasuna lantzen dabilen merkataritza akordioari buruzko hitzaldia eskainiko dute ekainaren 3an, 19:00etan, Iturrin. Jose Ramon Mariño izango da hizlaria; ekonomilaria eta justizia ekonomikoaren inguruan lan egiten duen Attac elkarteak kidea da.

Presoen eskubideen aldeko pausoak

DURANGO > Euskal preso politikoaren eta euren familien eskubideen alde herri lasterketak antolatzen ditu Lasterbidean ekimenak. Zapatuan, Durangon korrika egiteko zinta bat jarri zuten Andra Marian, eta jendeari bertan arineketan egiteko gonbita luzatu zieten, Lasterbideani buruzko informazioa emateaz batera.

Durangoko ikastolen lekukoa

DURANGO > Kurutzia eta Ibaizabal ikastolek 2016ko Ibilaldia antolatuko lekukoa hartuko dute domekan, Bilbon. Joseba Balerdi eta Kepa Zengotitabengoa ikastola bietako presidenteez jasoko dute lekukoa Harrobia ikastolako ordezkarien eskutik. Hortik aurrera urte osoa izango dute hurrengo Ibilaldia antolatzeko.

Eskerrik asko Durango!

EH Bilduk indartsu hasiko du Durangoko Udalean bere ibilbidea, 4.306 herritarren babesa lortu ostean, 7 zinegotziren ordezkariarekin. Ezkerreko soberanistek ordezkari batzatu batekin inoiz izan dugun ordezkari zabalena izango da Durangoko Udalean. Horregatik, eskerririk asko botoa eman duzuen durangar guztioi, eta gurekin lanean ibili zareten guztioi. Eman duzuen hori guztia ez da alferrikakoa izango. Onartu behar dugu, aldiz, ez dugula oraingoan gure helburu nagusia lortu: indar politikorik bozkatuena izatea. Ildo horretatik, oso mezu argi eta zehatzarekin aurkeztu gara hauteskundeetara: EAJren udalgintza ereduaren aurrean gure alternatiba ezagutaraztea eta eredu hori oposizioan uztea. Emaitzak hor daude. Onartu beharra dago, ordea, aldatetaren alde gauden indarrak EAJren

eredua irudikatzen duten indarren pareko izango garelako, ia-ia, udaletxean.

Epe laburreko helburu nagusiaren ondoan badaude, ordea, beste hamaika helburu xumeago. [...] Eta argi daukagu herritik sortu zen, herriaren baitan gorpuztu den eta herritarrekin batera lanean jarraituko duen fronte zabal hau tresna baliagarria eta eraginkorra dela Durango eta Euskal Herri hobe lortzeko. [...] Gaurtik aurrera, epe ertain eta luzera begira, gure helburua zuen aurrean hartu genituen 201 konpromisoak gauzatzea izango da. Udalean proposatuko ditugu, eta onartuak izaten saiatuko gara. Horrez gain, dinamika parte-hartzaileekin jarraituko dugu auzoetan, hauteskondeei begira hasitako kanpainari jarraipena emateko. Eskerririk asko!

Dani Maeztu, Durangoko EH Bilduren izenean

Amets gaiztoa ala errealitatea?

Zuen laguntza behar dut pasa den apirilaren 6an gertatu zitzaidana frogatzeko.

Eguraldi ona egiten zuela aprobetxatuz, Urkiolako parke naturaletik paseo bat ematera joan nintzen, eta etxera itzuli orduko, kotxera bidean, aterpetxe ondoan dauden komunitate abiatu nintzen. Baina, zoritxarrez, han ondoan dagoen zulo batean hanka sartu nuen. Kotxeen sarbidearen behealdetik hodi bat pasatzen da. Baina, aterpetxe parean jartzen bagara, eskuinetara kale-argi bat dagoen lekuan, zulo bat dago estali gabe. Hodiaren hasiera eta bide bazterra lotzen diren puntua da hori. Emakume batek eta bere alabak lagundu zitaden lurretatik altxatzen. Kolpe handia hartu nuen, baina zutitu egin nintzen beraien laguntzarekin, bihurtura besterik izango ez zelakoan. Gero kotxera gerturatu nintzen,

eta mina pasatuko zitzaidala pentsatu nuen; baina bai zera! Kotxea ezin nuela gidatu ikusita, Zaldibarko bikote batek Durangoko ambulatortara eraman ninduen. Handik, Galdakaoko ospitalera bidali ninduten, eta Akilesen tendoia apurtu nuela esan zidaten! Astebete geroago, operatu egin ninduten, eta, orain, mina pixkanaka kentzen ari zaidanez, mugitzen hasi naiz aseguruak kalte-ordainak eman diezazkidan. Horretarako, ordea, altxatzen lagundu zidan emakumearekin harremanetan jarri behar naiz, edo jausten ikusi ninduen beste edonorekin, jazotakoaren testigantza eman dezaten.

Eskatzen dizuedana da, egun horretan Urkiolan egon bazineten eta jausten ikusi baninduzuen, nirekin harremanetan jar zaitezte. Bestela, errealitatea amets gaizto bihurtuko da.

Miren Tejerina. Durango

Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea


Zure iritzia, gutuna edo fotodunentzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (artekak barne).

etxea jantzi

ANBOTOKO DEKORAZIO
GEHIGARRIA 2015

anboto
komunikabideak



EGONGELA | SUKALDEA | ARMAIRUAK | ARGIZTAPENA | BAINUGELA | LOGELAK | KOLOREA



KIBUC Amorebieta
Zure Ondoan

amorebieta@kibuc.com
Euro Hogar Merkataritza gunea
Montorra Auzoa z/g - Zornotza
Tel. 946 308 913 / 946 308 509

síguenos en  

KIBUC
Por fin en casa

www.kibuc.com

etxea jantzi

*Etxea dekoratzeko hainbat ideia eta proposamen aurkituko dituzu jarraian. Izan ere, etxea berrietzeko ez da zertan poltsikoa larregi astindu. Gainera, uda sasoiak ona izaten da hormak margotzeko, papera jartzeko eta etxekeko dekorazioari ukitu berezia emateko. Umeen-
tzako logela proposamenak, argiztapenerako modan dauden aukerak, argitasunez betetako sukaldeak, bainugela minimalistak... Denetarik aurkituko duzu ANBOTOren dekorazio gehigarri berezi honetan.*



EGONGELA

3

SUKALDEA

5

ARMAIRUAK

9

ARGIZTAPENA

10

BAINUGELA

12

UMEEN LOGELA

13

LOGELA NAGUSIA

14

KOLOREA

15

etarte

www.etarte.com

Barruetako diseinua

Ideiak sortu

Diseinatu

Eraiki

Apaindu

Bermatu

Barne- diseinatzailea:
GARAZI BURGOA



Euskal Herria z/g. ZALDIBAR

T/F: 94 603 04 16 - 635 71 73 60

info@etarte.com



EGONGELA

**Egongela eta jangela:
itxiturarik gabeko espazio bi**



Espazio handiko etxeetan, sofa eta 'cheslong' handiek estilo ezberdinetako aulki eta butakekin bat egiten dute.

Etxe txikietako espazioa aprobetxatu guran, egongelaren eta jangelaren ondoan, hormarik edo oztoporik gabe jartzeko joerak ez du hutsik egiten.

Eserlekuak egurrezko mahaiaren bueltan kokatu daitezke.



GANBERA
interiorismo

Barneko proiektuak eta eraberritzeak



Salmenta: altzariak, tapizak, dekorazioa, alfonbrak, gortinak, paperak...
Zezilia Gallartzagotia, 13 · 48340 Zornotza (Bizkaia) · 946 732 822

Gustu eta kolore guztietako sofak daude aukeran. Bakoi-tzak bere egongelaren estiloaren arabera aukeratu behar du.



Egongelari zergatik ez diozu sofagaz kolore ukitu berezi bat ematen? Aukera zabala duzu horretarako.



Lehen Bikoetxe



leike
aroztegia & diseinua

SUKALDEA

**Sukalde zuria:
garbitasunaren ikurra**



**Sukalde zuriek
zabaltasun
eta garbitasun
sentsazioa ematen
diote espazio horri.**



*Sukaldea txukun eta ordenatu-
ta mantentzeko txoko ugari di-
tuen biltegia aukeratu behar da.
Gauza bakoitza bere lekuan!*



Bertako fabrikazioa

febal  **COLOMBINI**
etxeen ordezkariak

**Bainugelak • Sukaldeak
Etxeko altzariak
Horma-armairuak**

San Miguel, 16 - **Zornotza** • Tel./Fax: 946 734 583 • cocitaketam@gmail.com
Olleria, 3 - **Durango** • Tel.: 946 201 516 • cocitaketdu@gmail.com





Ezkaratzeko ubartean bertan banketak jarri, eta jatorduak egiteko beste espazio bat sortzen da etxean. Batez ere, gosari zein afarietarako egokia izaten da.



Espazio handiko sukaldeek uhartea jartzeko aukera ematen dute. Indukzio plaka eta ke-kanpaia ere bertan jartzeko aukera dago.



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

Urbitate industriagunea, 6
Local 3 - 48220 Abadiño
Tel.: 946 202 656
abadiano@arriandi.com



SANTOS banatzaile ofiziala

EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK -
ALTZARIAK - DEKORAZIOA

Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu.



Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 **DURANGO** Bizkaia

www.epocasukaldeak.com

jarrai gaitzazu Facebook-en!

 [epoca.goro](https://www.facebook.com/epoca.goro)

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
20600 **EIBAR**
Gipuzkoa





*Altzari zuriek zabaltasun sent-
sazioa eman arren, sukaldeko
elementuren batean kolorea sar-
tzeak bizitasuna ematen dio.*



**Sukaldea altzariz eta
etxetresna elektriko
jantzi ostean,
plateraz, edalontziz
eta enparauez
hornitzeko unea da.**



piolarrabe

Frai Juan Zumarraga, 19
48200 DURANGO
Tel.: 946 811 696
Faxa: 946 811 101

Elexalde, 28
48940 LEIOA
Tel.: 944 631 321
Faxa: 944 636 067

www.piolarrabe.com

ARMAIRUAK

**Dena bistan:
ate bako armairuen momentua**

Ate bako armairuek arropa bistan uzten dute. Aukera sinplea izaten da, eta logelari itxura minimalista ematen diote.



Ate bako armairua jartzea erabakiz gero, barruan dagoen guztia txukun izan behar da. Armairu horretan ezin da sekreturik izan.



Bertako fabrikazioa eta diseinua.
Etxeko altzariak: logelak, egongelak, armairuak, sukaldeak eta komunak.

**PROIEKTUAK
ETA ERREFORMAK
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**



www.facebook.com/ebanisteriaagustin

**Ebanistería —
— AGUSTIN**

Murueta kalea, 1 · 48220 Matiena/Abadiño
946 812 685 - 667 590 795
www.ebanisteriaagustin.com
**DESKONTUAK
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK**

ARGIZTAPENA**Goitik behera:
lanpara handiak**

*Lanpara handiek espazioa
behar den moduan argiztatzen
dute. Argi bakarra edo hainbat
argi izan ditzakete.*



Mahai gainean jartzen
den lanpara luzetara
ipintzea komeni da, argi
maila bera puntu guztie-
tara heltzen dela ziurta-
tzeko.



ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 - DURANGO - Tel.: 946 812 492
www.facebook.com/ilargiiluminación



Etxeko txoko batera argiztapena behar den moduan heltzen ez bada, zutikako lanpara jartzea komeni izaten da.



Diseinua zutikako lanparen ardatza da. Hori bai, etxeko dekorazioagaz bat datorrena aukeratu beharko duzu.



ARGIZTAPEN TEKNIKAK MARKIEGI PROIEKTU ELEKTRIKOAK

Tel.: 946 203 520 - 946 202 176 - 656 793 932
Plateruen plaza, 4 behea - 48200 Durango


www.markiegi.com
helbide elektronikoa: markiegi@markiegi.com

BAINUGELA**Bainugela:
artearen txokoa**

*Diseinua bainugelaraino heldu da. Bainua duten etxeetan koa-
droak horman jartzea
moda-modan dago.*



Sinpletasuna bihurtu da komunen ikur. Zuria eta marroia uztartu, eta forma biribilak erabiltzen dira.

**ETXETXO****G. INMOBILIARIA**

ETXEBIZITZEN SALEROSKETAK ETA ALOKAIRUAK

Ekainean bisitatuko gaituzten guztiek *opari bat* jasoko dute!

Frai Juan Zumarraga kalea, 11 - 48200 Durango
Tel.: 946 814 049 - 657 790 138 - info@inmoetxetxo.com
www.inmoetxetxo.com



**UMEEN
LOGELA**

**Umeen txokoa:
espazioa aprobetxatzen**



Umeen logela dekoratzeak bere zailtasuna du. Espazio txikiak izaten dira, eta dena aprobetxatu beharra dago.



Ume bakar batentzako logeletan, literaren goiko aldean koltxoia jarri, eta beheko espazioa beste zerbaitetarako aprobetxatu daiteke.



etxedreams
COLCHONERIAS

30 urte pertsonen ongizatea lantzen

*Atsedenez
egingo dugu berba?*

%50 eko
DESKONTUA
Koltxoietan



DURANGO: Mikeldi 4 - Tel.: 946 202 138

**LOGELA
NAGUSIA**
**Atsedenerako lekua:
ohe erraldoia**

Atsedena garrantzitsua da, eta kalitatezko koltxo bategi kalitatezko atsedena emango dizu.



Oheaz gainera, logelak beste hainbat elementu izaten ditu. Aprobetxatu itzazu, eta eman iezaiozu behar duen kolorea zure logelari.



APAINKETAK
ROYUELA

BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz

KOLOREA

**Bizietatik pasteletara:
etxea koloreztatu ezazu**



*Umeen logeletan 'sticker'-ak
jarrita, dekorazioa erraz eta
merke aldatu daiteke.*

**Dekorazioan, non sartu
daiteke kolorea? Aukera
bat ohearen horma
nagusia izan daiteke.
Egongelako sofa ostea
ere aproposa izaten da
papera jartzeko.**



TABIRARA
Zure proiektuak kolorez betetzen ditugu **COLOR**

www.tabiracolor.com

946 217 911
(Durango)

673 134 367

(Simply saltoki-gunea - Durango)

946 256 759 (Gernika)

944 398 679 (Bilbao)

procolor

sikkens





BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

BADAKIGU ZURE DENDA GARELA



Sukaldeak

Egongelak



Logelak



Haurrentzako logelak



Tapizak



Bainugelak



www.bautistamuebles.com

☎ 94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

PROIEKTUA ETA AURREKONTUA KOMPROMISORIK GABE
FINANTZIAZIOA DOHAINIK

Iurreta, Mallabi eta Markinako abeslariak, Benito Lertxundiren kantek elkartuta

Hamaika kanta prestatu dituzte Iurretako, Mallabiko eta Markinako abeslariak, hiru emanalditan eskaintzeko



Ixaso Jaio, Uxue Alonso eta Iratxe Uribelarrea dira hiru abesbatzetako zuzendariak, eta elkarlanaren bultzatzaileak.

> MUSIKA Itsaso Esteban Ekainean, hiru emanaldi eskainiko dituzte Iurretako, Mallabiko eta Markinako haur eta gazte kantariak, hiru herri horietan. Mallabian eskainiko dute lehenengoz azken hilabeteetan prestatzen ibili diren Benito Lertxundiren kantetan oinarrituriko emanaldia. Ekainaren 6an izango da emanaldi hori. Markinan kantatuko dute ekai-

naren 20an, eta Iurretan 27an. Uztaileko lehenengo asteburako ere jaso dute proposamena, eta formatu txikiagoko emanaldia eskainiko dute, Urkiolan. Iurretako, Mallabiko eta Markinako ia ehun abeslarik eta Durangaldeko hainbat musikaririk parte hartuko dute emanaldietan.

Uxue Alonso Iurretako eskolako abesbatzako zuzendariak proposaturiko ekimena da.

“Lertxundiren betiko kantak dira, bereziki politikak umeen ahotsean, entzuleak hunkitzen dituztenak”

Azaldu duenez, Benito Lertxundiren kantak abesten zituen umeen abesbatza baten bideoa ikusi zuen Interneten, eta antze-

ko zerbait egiteko gogoia sortu zitzaion. “Betiko kantak dira, bereziki politikak umeen ahotsean, entzuleak hunkitzen dituztenak”, azpimarratu du. Bi, hiru, eta lau ahotsetara eskainiko dituzte kantak, “orkestrarako moldaketa oso politekin”.

Iurretako eskolan ikasturte honetan sortu dute abesbatza. Uxue Alonsok proposatu zuen abesbatza eskolaz kanpoko jar-

duera gisa, eta Lehen Hezkuntzako hamazazpi umek eman zuten izena. Jendaurrean kantatuko duten lehenengo aldia izango da ume horientzat ekainaren 6koa, baina duela urte batzuk abesbatzan ibilitako bost emakumek osaturiko Lamiñamak taldeko kideek ere parte hartuko dute ekimenean.

“Hau egiteko jende asko behar zen; ezin nuen bakarrik aurrera eraman”, azaldu du Uxue Alonsok. “Iratxe eta Itxaso lagunak ditudanez, Mallabiko eta Markinako taldeei proposatu nien elkarrekin jardutea”.

Elkarlanerako gogoz

Mallabiko kasuan, umeen zein helduen abesbatzek parte hartuko dute hiru emanaldietan: 23 eta 36 urte arteko zortzi mallabitarrez osatutako taldeak, eta 25 umegaz oraintsu sortutakoak.

Markinako umeen abesbatza zuzentzen 1997. urtetik dabil Itxaso Jaio, eta herriko ikastetxe bietako 43 umegaz egiten du lan. “Oso pozik eta ilusio handiagaz hartu genuen Uxueren gonbidapena”, azpimarratu du Jaio, “ez dugulako aukera askorik edukitzen beste jende batezagaz kantatzeko, harremanak egiteko, eta elkarlanerako”.

Orkestra bat ere osatu dute hiru emanaldi hauetan zuzeneko musika ipintzeko. Durangaldeko musikariak dira orkestrako kide gehienak, eta Bilbotik etorriko dira beste hainbat.

Markeliñeren ‘Andante’ kale antzezlanaren saria eman diote Umore Azokan

Euskadiko kaleko obrarik onenaren saria eman diote

> ANTZERKIA

Kaleko artisten Leioako Umore Azokan saritu dute Zornotzako Markeliñe taldearen *Andante* antzezlan. Euskadiko kaleko ikuskizunik onenaren saria jaso du Markeliñek, epaimahaiaren berbetan, “kalea eraldatzeko erakutsitako ausardiagatik eta, kale antzerkiaren muinera joz, publikoa giro poetiko eta iradokitzailean murgiltzeagatik”.

Iazko irailan, Tarregako (Katalunia) antzerki jaialdian aurkeztu zuen Markeliñe taldeak *Andante*. Berbarik baliatu barik, baina modu poetikoan, eta zaindutako umoreagaz, ahaztu behar ez genituzkeen istorioak kontatzen ditu *Andante* antzezlanak: “Gerretako zapata anonimoen istorioak. Gureak

izan daitezkeen zapatenak”, antzerkigileen berbetan.

Iazko irailan, Tarregako antzerki jaialdian aurkeztu zuen Markeliñe antzerki taldeak ‘Andante’

Gerretan edo oinarritzko eskubideak zapaltzen diren beste-lako egoeretan zapatei gertatzen zaiena metaforatzat darabilte, ikusleak gogoetara bideratzeko: “Desegindako etxe baten hondakinetatik agertzen diren zapatak, desberdin pentsatzeagatik ezkutatu behar duten eta jazarpena jasaten duten zapatak, euren borrarroak zigorrik



Aktoreek ez darabilte berbarik kaleko antzezlan honetan, baina zaindutako umorea bai.

barik ikusten dituztenak...” dira Markeliñeren antzezlaneko protagonistak.

Fernando Barado, Itziar Fragua eta Jon Kepa Zumalde antzezleek dihardute obran. Euren gurdiagaz bidean doazela, kalean botata topatzen dituzten zapaten istorioak kontatzen dituzte aktoreek. “Antzerkiaren magiak gizakion izatearen

argi-ilunak erakusten dituzten istorioetako protagonista bilakatzen ditu zapatak”, azaltzen du antzerki taldeak, obraren aurkezpen orrian.

Taldeak aurten jaso duen bigarren sari garrantzitsua da Leioakoa: *Kixote* ere saritu dute Gijongo Feten jaialdian.

Maiatzaren 21etik 24ra egin dute Umore Azoka Leioan, eta

50 antzerki talderen proposamenak izan dira bertan ikusgai; tartean 22 estreinaldi. Compagnie Les Mobilettes Frantziako taldearen *Café Frapé* lanak jaso du Umore Azokara aurkezturiko ikuskizun onenaren saria, eta *Latente* obran egindako lanagatik artista berri onenaren saria eman diote Paula Quintana dantzariari.

> **MUSIKA** Itsaso Esteban
Ekainaren 19an, 20an eta 21ean izango da, Zornotzan, fanfareen, banden eta kaleko musikarien Haizetara jaialdiaren hamargarren edizioa. Jaialdiak hamar urte egin dituela ospatzeko, aurreko bederatzi urteetan lehiaketa irabazi duten musika bandak gonbidatu dituzte, "onenetan onena zein den ebazteko".

Jaialdiak hamar urte egin dituela ospatzeko, aurreko urteetako irabazleak gonbidatu dituzte aurten

Aurten, beraz, ez dute aurreko urteetan bezala taldeen izen-emate deialdi zabalik egingo. Haizetara lehiaketako aurreko edizioetan epaimahaiak irabazle izendatu dituen nazioarteko bederatzi musika talde ariko dira, ekaineko hirugarren asteburuan, Zornotzan: Estraburgoko La Fanfare en Petard, La Banda de la Maria sevillarra, Parisko No Water Please, Italiako Livorno hiriko Magicaboola Brass Band, The What Cheer?

Aurreko urteetako 9 irabazleak lehiatuko dira Haizetara jaialdian

Ekainaren hirugarren asteburuan izango da Haizetara lehiaketa, Zornotzan



Herriko kale eta plazetan zehar eskaintzen dituzte lehiaketaren barruko emanaldiak parte hartzen duten bandek.

Brigade talde estatu batuarra, Frantziako Tolosako Funky Style Brass, iaz irabazi zuen Londresko Perhaps Contraption eta hiri bereko Oompah Brass, eta Lyongo Le Bus Rouge taldea.

Ekainaren 19an, 20an eta 21ean egingo dute Haizetara musika lehiaketa, Zornotzan

Haizetara jaialdiko egunetan, musikak hartuko ditu Zornotzako kaleak. Aurreko edizioetan bezala, elkarren arteko lehiari ibiliko dira musika bandak herrian zehar.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Barbaroko kidea



Gozogileak

Argituz doaz zalantzak. Ez denak, ordea; aste osoa baitarogatu espekulatzen, konbinaketak egin, handik kendu eta hemen ipini... nor bere nahiak edota interesak aginduta. Aldaketa berba dabil bolo-bolo. Ez nuke edozelakoa nahi.

Neskato bati bere herrian hautatu dituzten agintariak eta haien eginkizuna irudikatuko lituzkeen galdetu diote, aldatzearen beharraz. Eta egin du, marrazki ederra atera zaio, *Gozogileak* izenburua ipini dio, eta pastel egile itxurako lantaldea osatu du. Harrigarria da zein zehatz irudikatu dituen pastelxoak, bakoitzari izen bat ipini baitio, eta labea, oreka eta eskuak ere nabarmendu ditu kolore bizien bidez. Baina bitxieta izan da ertz batean marraztu dituen aho zabal handi gosetuak.

Labeak eta gainontzeko tresneria prest dute. Sukaldari finak direla dirudi, batzuk beste batzuk baino gehiago; trebeak... ez dakit ba, hasiberriak ere badira zenbait. *Mise en place* delakoa garrantzitsua dela esaten dute maisuek. Osagaiak eta prestatu beharrekoak egoki aurreikustea funtsezko dohaina da emaitza ona izan dadin. Zerbitzatzeko moduak biribilduko luke eginkizuna.

Alabaina, kezka eragiten didaten aho zabal handi gosetu horiek dira, jakia eman diezaioten itxaroten daudenak, mamitsu eta gozo-gozo hartzeko irrikan, geldirik eta goseti, eta, halaber, jakitun ondo mamurtuta emango zaiela dena.

Gozogile hautatu berriei zortirik onena opa dizuet; pastel gozo eta mamitsuak egiteaz gain, izan bedi herritar guztion gosea asetzeko lain.

Mikel Antzaren poesia errezitatuko dute Hitzen

'Ametsak ere zain' liburua aurkeztuko dute Durangon

> LITERATURA

Mikel Antzaren (Donostia, 1961) *Ametsak ere zain* liburuko poesia irakurraldiaz gozatzeko proposamena luzatuko dute, ekainaren 4an, Durangoko Hitz liburu dendan.

Musikak lagunduriko poesia errezitaldia izango da, datorren egunean, 19:00etatik aurrera, Artekaleko liburu dendan eskainiko dutena. Itziar Castrillok saxofoiagaz eta Gotzon Barandiaranek gitarragaz lagundurikoa, hain zuzen.

Mikel Antzak idatziriko berbak irakurtzen, bestalde, Josu Landa eta Gotzon Barandiaran ariko dira, egunean, Hitzen.

Mikel Antzak kaleratu duen lehenengo poesia liburua da, Susa argitaletxeak aurten plazaratu dutena. Sei poema luze osatzen dute liburua, kartzelan idatzitakoak, eta askok kartzela dute hizpide: kartzela fisikoa zein psikologikoa. Militantzia politikoari loturiko hainbat go-goeta dago olerkietan.

Itziar Castrillok saxofoiagaz eta Gotzon Barandiaranek gitarragaz lagunduko dute poesia errezitaldia

Arberas kantuan eta García organoan, Durangon, gaur

San Fausto elizan izango da emanaldia entzungai

> MUSIKA

Amaia Arberas soprano donostiarraren eta Ana B. García organista andoaindarraren emanaldia hartuko du, gaur, 20:00etatik aurrera, Durangoko San Fausto elizak. Euskal Astearen barruko emanaldia da iluntzekoa, eta Arandoño kultur elkarteak antolatuta du.

Barne kantak. Basque Journey Duo izenburupean bilduriko kanten erreperitorioa eskainiko dute Arberasek eta Garciak. Aita Donostiaren, Iparragirren, Guridiren, Sarriegiren eta Solozabalen kanta ezagunak eskainiko dituzte, esaterako. Tartean, *Ilunabarra*,

Oiñazez, Hara nun diran, Alabaita eta *Goizeko izarra* abestiak, besteak beste.

Organoa soilik

Euskal kantagintzako hamabost ale eskainiko dituzte musikari gipuzkoarrek, denera, Durangon. Gainera, Ana B. Garciak organoagaz bakarrik joko ditu beste bi obra ere, San Fauston. Naji Hakim organista libanoarrak sorturikoak dira organorako bi lan horiek. Hakimek Garciari eskainitakoa da bietako bat, *Prélude, Choral et Danse* izenekoa. Obra horren estreinaldia egingo dute Durangoko gaurko emanaldian.

Sanagustinalde, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Adinekoek antzeztutako VI. antzerki jardunaldiak

El mesón de los suspiros
Goratagora antzerki taldea. Durango
Maiatzaren 29an eta 30ean, 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEAK
BARRIOA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETXEA

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

MAIATZAK 29
22:30etan
DAVID GUAPO
BAKARRIZKETA

MAIATZAK 30
13:00etan
KANTUKALE KALEZ KALE
KANTALDIA

MAIATZAK 30
21:00etan
ATHLETIC BARTZELONA
IKUS ENTZUNEZKOA



Egun bat Baqueren bizitzan

> BAQUÉ

Cafés Baquek XX. mende hasieratik txigortzen eta saltzen du kafea, eta ordutik hona eraberritzen eta soluzioak bilatzen jarraitu du, baita hazteko eta lehiakorragoa izateko bideetan pentsatzen ere. Horregaz batera, etengabe lan egin du gure eskualdean kafearen kultura sustatzeko eta ezagutarazteko. Hori dela-eta, oraingo honetan Cafés Baquera hurbildu gara, bere Kafe Eskola aitzindaria bisitatu, eta lan guztia garatzen duten lekua ezagutzeko helburuagaz. Bertan, Alejandro Rodríguez Cafés Baqueko prestakuntza arduradunagaz elkartu gara, eta bisita gidatu batean lagundu digu, Kafe Eskolan egiten den lana ikusi dezagun.

Zer da Cafés Baqueko Kafe Eskola? Zein da bere helburua? Kafe Eskola denbora luzez lantzen eta garatzen egon garen kontzeptua da, kafearen kultura eta ezagutza sustatzen, zabalitzen eta garatzen laguntzen digun erreminta. Lantzen dugun produktuari buruz dakigun guztia transmititzeak kalitateak ezberdintzen, bertuteak aurkitzen eta modu zuzenago batean haiek baloratzen lagunduko di-

gula uste dugu. Katilu bakoitza gehiago disfrutatzen laguntzen digu horrek, baita kontsumitzen dugun kafeagaz kritikoagoak eta zorrotzagoak izaten ere.

Eskola nori bideratuta dago?

Kafea gure egunerokoan gehien kontsumitzen dugun produktuen artean dago, eta, horregatik, produktu hau jendeak gehiago ezagutu beharko lukeela uste dugu. Profesionalak, ostalaritza eskolak, kontsumitzaileak... Uraren ostean gehien kontsumitzen den edariari buruz gehiago jakin nahi duen oro ongi etorria da gure eskolan.

“

Kafe Eskola kafearen kultura eta ezagutza sustatzen, zabalitzen eta garatzen laguntzen digun erreminta da”

Zer da Kafe Eskolan lantzen dena? Hainbat ikastaro eskaintzen dituzue, ezta?

Kafe aletik katiluraino, ezagutu behar ditugun parametro anitz daude. Existitzen diren ehunka jatorriei buruz dakiguna zer den, laborantzan zer gertatzen den, kafe katiluan aurkitu beharko genukeena zer den eta, zelan ez, kafea nola txigortu behar den azaltzen dugu gure ikastaroetan, hori delako gure eguneroko lana. Amaierako elaboraziora zuzendutako ikastaroak ere baditugu, eta kafe erauzketa egiteko hainbat modu eta hainbat elaborazio sistema ezagutarazten ditugu. Barista ikastaroak ere, baristak prestatzeko bereziki diseinatuak, eskaintzen ditugu. Bertan, kafe ale bakoitzetik onena erauzten eta katilu bikainenak lortzen irakasten diegu. Kafe Eskolan dakigun guztia irakasten saiatzen gara, eta, bitartean, kafeak osasunerako dituen onurak –asko dira– ere ezagutarazten ditugu.

Baristen formakuntzarako ikastaro zehatzak eskaintzen dituzuela aipatu duzu, oraindik gure lurraldean ezaguna ez den irudia da hori. Zer da barista izatea?

Pixkanaka-pixkanaka barista hitza gure hiztegian ezagunago egiten dabil, profesionalak nahiz kontsumitzaileak hasi dira ulertzen barista bat kafe eza-gutzaile bat dela, eta kafea elaboratzeko sistema desberdinetan aditua dela. Gure lurraldean elaborazio sistema nagusia espresso da, horregatik, barista bat antzemateko modu errazena bere espressoak eta cappuccinoak prestatzeko eta zerbitzatzeko era da, eta kafeagaz eta beste produktu batzuekin egin ahal dituen konbinazioei erreparatu ta ere antzeman daiteke nor den barista.

“

Profesionalak, ostalaritza eskolak, kontsumitzaileak... Kafeari buruz gehiago jakin nahi duena ongi etorria da gure eskolan”



Pasa den maiatzaren 13an, Artxandako Ostalaritza Eskolan jokatu zen Euskadiko Barista Lehiaketaren X. Edizioa, kafe prestakuntza eta zerbitzuan espezializatua. Bertan, gai honetan benetako profesionalak direnek parte hartu zuten, kafe prestakuntza goi-mailako ezagutza dutenek, baita produktua, jatorria, nahasketa eta txigorketa ezagutzen dutenek ere.

Edizio honetan, Mario Vidalek, Cafés Baqueko Kafe Eskolan prestatutako baristak, Euskadiko barista onenaren titulua lortu zuen, eta, gainera, espresso, latte art eta espezialitate edari onenaren sariak ere lortu zituen. Bigarren sailkatua ere, Angel Soriano, Kafe Eskolan prestatutako barista da, eta hirugarren postua Jose Maria Aguirrek bereganatu zuen.

Datorren ikasturtean Iurreta institutua zentro integratu izatera pasatuko da

Lanbide Heziketaren IV. Planagaz, Lanbide Heziketara bideratuko du bere jarduerara osoa



> HEZKUNTZA

Espezializazioa eta enpresetik geroago eta hurbilago egoitea dira Lanbide Heziketako zentroyen erronkak hurrengo urteetarako. Iurretako institutuaren kasuan ere, helburuak betetzeko pausoak ematen dabilta. Tomas Maguregi zentroko arduradunak dioenez, etenbako hobekuntzan jardutea ezinbestekoa da sasoi berrietara egokitu ahal izateko.

Zelako harrera izaten du Lanbide Heziketak gazteen artean? Gazteek, egun bizi dugun egoera ikusita, Lanbide Heziketa lana topatzeko tresna gisa ikusten dute. Iurretan urtero 300-350 ikasle inguru dauzkagu; aurten 343 izan dira, sei familiatan banatuta: Administrazioa, Informatika, Automozioa, Elektronika, Giza Zerbitzuak eta Fabrikazio Mekanikoa. Araututako heziketa ziklotik kanpo enplegurako formakuntzari ere garrantzi handia ematen diogu.

Aurten honako formakuntza ekintza hauek garatu ditugu: Lanbideko ikastaro bi, Automozioa eta Fabrikazio Mekanikoa -940 ordu eta 34 ikasle-, eta Hobetuzeko hamabi ikastaro, hainbat espezialitatetan -710 ordu eta 150 ikasle-.

Lan munduan barneratzeko aukera asko ematen ditu Lanbide Heziketak? Kontuan izanda ikasleek heziketa ziklo guztietan, bigarren ikasturtearen amaieran, Lantoki Prestakuntza modulua nahitaez egiten dutela, hau da, enpresetan eginiko praktikak, aukera ona dute bertan lan kontratuagaz gelditzeko. Momentu honetan denok dakigu zer egoeratan gauden, baina bai lan eskaintzari dagokionez, bai lan kontratuen kalitateari dagokionez, gauzak hobetu daitezkeela uste dut; hala ere, gure ikasleek lanean jarraitzeko jaso dituzten eskaintzei kasu egiten badiegu, gauzak hobetzen doazela esan

genezake. Bestalde, ez dugu ahaztu behar Urratsbat proiektuagaz ikasleei ekintzailatasuna garatzeko eskaintzen diegun tresna. Azken zazpi urteetan hogeitabat negozio edo enpresa sortu dira era horretan gure ikasle edo ikasle ohiekin.

Zer ibilbide izan du Lanbide Heziketak? Gero eta ikasle gehiago hurbiltzen dira? 2009. urtetik Lanbide Heziketako ikasle kopurua %21 baino gehiago igo da Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan. Krisialdiak pertsona helduak ekarri ditu gure ikastetxetara. Alde batetik, ikasketak bere garaian utzi zituen pertsona kopurua gehitu da gure matrikulazioan. Baina, bestetik, bat-batean langabezian gelditu diren pertsonak ere badaude, eta egoera hori aprobetxatu, eta euren prestakuntza maila hobetu nahi izan dute. Aipatzekoa da Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan matrikulatutako %15 unibertsitate ikasketetatik datorrela.

Zelan eragin du ikasle eta irakasleen artean metodologia berrien erabilerak? Ziurgabetasun eta konplexutasun handiko egoera bat bizi du gizarteak gaur egun. Lanbide Heziketa ez dago errealitate horretatik kanpo, eta Iurreta institutua ere ez. Durangaldean 2030. urtean beharko diren ikasle eta langileen profila ezberdina izango da, ziur. Gizarte globalizatu honetan, aldaketetarako prest egoteak garrantzi handia

du. Horrek guztiak ikastetxean metodologia berriak erabiltzera bultzatzen gaitu, eta horretan gabiltza. Irakaslearen rola aldatuko da hein handi batean. Edukiak azaltzez gainera, garrantzi handia dauka ikaslearen ondoan egoteak, informazioa bilatzen laguntzeko. Proiektuak garatzea eta horren inguruan lan egitea aberatsa dela argi dago; horretan trebatzea ere bada helburua.

Aipatu ahal duzu proiektu egitasmoren bat?

Ikastetxe barruan eta kanpoko agenteekin garatzen ditugu proiektuak. Adibidez, aurten, Gallanda proiektuan hiru mintegi daude lanean auto elektriko bat egiten; Fabrikazio Mekanikoko, Elektronikako eta Automozioiko ikasleek dagozkien esparruak lantzen dituzte helburu bakar batez. Gainera, Erandioko Tartangako ikastetxeagaz eta Deustuko Unibertsitateagaz batera, automozioari dagokion alde elektrikoa ikasteko aplikazio bat garatzen gabiltza.

“*Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan %21 baino gehiago igo da Lanbide Heziketako ikasle kopurua*”

Serious Game izeneko proiektuaren oinarrian dago kotxkeen matxurak detektatzeko aplikazio bat egitea, gazteek ondo menperatzen duten joko formatua erabilita. Bestetik, datorren ikasturteari begira, baditugu beste bi proiektu. Eta Lanbide Heziketako sailburuordetzaren bultzada lortzea espero dugu.

Gainbalio inportantea dauka Lanbide Heziketak gaur egungo egoera ekonomikoan? Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako IV. Plana abian jartzeak eta Lanbide Heziketako Legea garatzen egoteak adierazten du egoera ekonomiko honetatik ateratzeko prestakuntzak eta formakuntzak duen garrantzia. Nire ustez, daukagun Lanbide Heziketa eredu ona dela esatea estatu mailan eta Europar gutaz duten iritzia islatzea besterik ez da, beraz, harro egoteko motiborik badugu Lanbide Heziketan gauden guztiok. Baina ezin gara horretan gelditu, etengabe hobe-

tu behar dugu. Bizi dugun krisialdiaren aurrean Darwinek esandakoa etortzen zait gogora: “Bizirik irauten duena ez da azkarrena, ezta indartsuena ere, aldaketetara hobeto egokitzen dena baizik”. Hori horrela bada, badugu lana...

Lanbide Heziketaren IV. Euskal Planari buruz zer duzu esateko? Planak bost ardatzetan oinarritzen da: heziketa integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailatasun aktiboa, nazioartekotzea eta Lanbide Heziketako ikastetxeen sare lana.

Guk, ikastetxeok, gure ildo estrategikoetan bat egiten dugu helburu horiekin, eta gureganatzen ditugu. Iurreta institutua datorren ikasturtean zentro integratu bihurtuko da. Lanbide Heziketara bideratuko dugu gure jarduerara osoa, heziketa arautua zein lanerako formakuntza eskainiko ditugu, hau da, eskaintza integrala emango dugu. Kudeaketan ere aldaketak izango dira, enpresak, sindikatuak eta beste agente batzuek ere parte hartuko dute. Gure ustez, gestio mailan ateak zabaltzen dituen eredu bat da.

Lanbide Heziketa enpresekin oso lotuta dago. Zein harreman daukazu?

Oso harreman ona eta estua dugu inguruko enpresekin. Orain 110 ikasle daude Lantokiko Prestakuntzako modulua egiten. Aurten proiektu pilotu batean murgilduta egon gara. Beste hiru ikastetxeagaz batera, Berrikuntza eta Hobekuntza Zerbitzu Teknikoa eskaini dugu. Lanbide Heziketa ikastetxe eta irakasleok osatzen dugun sarearen bitartez, tren industria enpresa osagarri prozesu berriak ezartzeko eta horiek hobetzeko laguntza eskaini diegu. Gure ikastetxe sarea saiakuntza banku gisa erabiltzeko posibilitatea ere badago, eta, adibidez, Iurreta institutuan atondu berri dugun 3D inprimagailuen tailerra erabiltzeko aukera dago.

Iurreta Institutuaren Saria banatuko duzue laster.

Ekainaren 5ean, barikuan, Lantoki Prestakuntza praktikak egiten egon diren ikasleak bertara etorriko dira ikasturteari agur esatera. Urtero aprobetxatzen dugu ekitaldia Iurreta Institutuaren Saria banatzeko. Aurten hamabigarren edizioa da, eta kasu honetan gure ikasle ohi baten ibilbide profesionala gorapatzea erabaki dugu. Juan Antonio Burgos, Iurretan kokatuta dagoen SVP Broadcast Microwave enpresaren sortzailea da, eta Elektronikako ikasle ohi hori gure ikasleentzat eredu izan daiteke, eta berak izan duen esperientzia azaltzea gura dugu.





Iurreta GLHB insitutuan 343 ikasle dabilta heziketa zikloetan zein enplegurako formakuntzan.



arrakasta eta hurrengoan beste batek”, azaldu du Rikardo Zenikaonandia zuzendariak. Enpresen premiei dagokienez, egun, “ekimen handiko pertsona sortzaileak behar eta eskatzen dituzte. Lan munduan sortzen diren arazoei erantzuna ematen eta taldean lan egiten dakitenak”. Bere berbetan, “lan egoera kontuan hartuta, Lanbide Heziketako ikasle gehienek topatzen dute lana; gainera, Durangaldean errazago dute, enpresek horixe eskatzen dutelako. Aurrerago ere, jubilazioak direla eta, mota horretako langile asko eskatuko dituzte”.

Iurreta institutuan eta Maristak ikastetxean ekainaren 5era arte eman ahalko da izena

> MATRIKULAZIOA

Oro har, enpresa arloan zein gizartean sortutako premiei erantzuteko prestakuntza herriamintza aproposa da Lanbide Heziketa, lan merkatuari estuen lotutako formakuntza eskaintza da eta. Durangaldean Iurreta GLHB institutuak eta Maristak ikastetxeak eskaintzen dute ikasketa multzo hori, eta hasi da dagoeneko 2015-2016 ikasturterako matrikulazio epea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako zentroetan bezala. Maiatzaren 25etik ekainaren 5era arte dago horretarako aukera. Goi eta erdi mailako zikloak zein enplegurako formakuntza

eskaintzen dute zentro horiek. Iurretan euskaraz eskaintzen dituzte heziketa ziklo guztiak.

Ikasle kopurua gehituz

Iurreta GLHB institutuan 343 ikasle dabilta heziketa zikloetan; Maristetan ere ikastetxearen erdia baino gehiago dira Lanbide Heziketako ikasleak.

Iurretako institutuko zuzendari Tomas Maguregik onartu du azken urteetan ikasle kopurua hazi egin dela: “Bizi dugun krisi egoerak izan du eragina horretan; gazte askok heziketa zikloak aukeratu dituzte trebatzeko, baita gaztetan ikasketak utzi eta berriro hartu gura dituz-

tenek ere –erdi mailako zikloak aukeratu ohi dituzte–. Beste alde batetik, unibertsitatean bukatu ondoren, Lanbide Heziketa egiten dutenak ere gero eta gehiago dira –goi mailako heziketa zikloan daude–. Iaz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Lanbide Heziketan hasi zirenetako %15 unibertsitateetatik heldu ziren.

Aukera zabala

Industriari lotutako heziketa zikloek osatu dute Lanbide Heziketaren eskaintza urtetan; hala ere, gizarte zerbitzuek gero eta leku handiagoa hartu dute. Iurretan, 2010ean ipini zuten mar txan menpekotasun egoeran

dauden pertsonen arretarako erdi mailako teknikari zikloa, eta oso harrera ona izan du: “Gizartearen premiei erantzuten dio zelanbait Lanbide Heziketak. Adineko pertsonekin lan egiteko prestakuntzari lotuta hutsune bat zegoen, eta asmatu genuen”, azaldu du Maguregik. Gainera, 2015-2016 ikasturtean ziklo hori euskaraz eta ingelesez eskaintzeko aukera eman diete.

Ildo berean, aukera gero eta zabalagoa dela diote Maristak ikastetxean ere, eta, gustu eta gaitasunen arabera aukeratu ohi dutela ikasleek: “Dena den, modak ere badaude honetan. Urte batean ikastaro batek du

Lanbide Heziketa duala

Iurretan, hiru ikaslegaz hasi ziren txandakako erregimeneko Lanbide Heziketa duala eskaintzen, 2013-2014 ikasturtean. Maristetan, berriz, 2012an hasi ziren, eta, aurtun, ikasle kopurua bikoiztu dute. Maguregiren arabera, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako IV. Euskal Planak jasotako ildoak erantzuten dio horrek: “Ikasleak aukera du hasieratik enpresa batean lan egiteko, praktika kontratu baten bitartez”. 2015-2016 ikasturtean, automozioan ez ezik, fabrikazio mekanikoan eta elektronikan ere eskainiko dute aukera hori Iurretan. Maristetatik ikasle horien lan ona nabarmendu dute: “Baina ezin dugu ahaztu atzean dauden irakasleen ahalegina, horretarako prest dauden enpresak aurkitzea lan handia da eta”.

IKASTETXEA	IKASKETAK	EREDUA
CPES SAN JOSE-MARISTAK BHIP 	Fabrikazio mekanikoko diseinua	D
	Instalazio elektrikoak eta automatikoak	A
	Mekanizazioa	A
	Automozioa eta robotika industrialia	A
	Administrazio kudeaketa	A
	Sareko informatika sistemen kudeaketa	A
	Administrazioa eta finantzak	A
IEFPS IURRETA GLHBI  Goi-mailako Lanbide-Heziketako Berariazko Institutua	Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa	D
	Mekanizazioa	D
	Sareko informatika sistemen kudeaketa	D
	Administrazioa eta finantzak	D
	Ibilgailu automobilen elektromekanika	D
	Menpekotasun egoeran dauden pertsonenganako arreta	D
	Administrazio kudeaketa	ABD
	Mantentze elektronikoa	D
	Automozioa	D



Iurretako udaletxe aurretik hasiko dute Emakumeen Bira, desanexioaren 25. urteurrena gogoratzeko

Aurtengo Birak bost etapa izango ditu, ohi baino bat gehiago; ekainaren 10eko erlojupekoa gehitu diote desanexioa gogoratzeko

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Aurtengo Emakumeen Bira aurkeztu dute asteon. Ekainaren 11tik 15era lehiatuko dute, eta bost etapa izango ditu, normalean baino bat gehiago. Aurten 25 urte bete dira Iurreta Durangotik desanexionatu zenetik, eta, data hori gogoratzeko, erlojupeko proba batez hasiko dute Bira, ekainaren 10ean.

Txirrindulariak udaletxe paretik abiatu, eta Askondon helmugaratuko dira. Ez da erlojupeko luzea izango -1,9 kilometro-, baina bai esangura handikoa. Lehen txirrindularia 19:30ean abiatuko da.

Azpimarratzekoa da UCI mailako hiru euskal talde lehiatuko direla lehenengoz: Bizkaia-Durango, BZK Emakumeen Bira eta Lointek. Lehenengo biak Durangaldeko taldeak dira.

Munduko onenak datoz

Urtero legez, munduko txirrindularirik onenak etorriko dira Birara. Herbehereetako Rabo-Liv eta Boels Dolmans dira talderik indartsuenak -batez ere, lehenengoa-. Robo-Liv taldean dabilta UCI rankingeko aurreneko txirrindulari biak, Marianne Vos eta Anna Van der Breggen herbeheretarrak, eta baita laugarren sailkatua ere: Pauline Ferrand-Prévot frantziarra. Vosek ekainaren amaieran jokatu den Mendiko Bizikleten Munduko Txapelketa irabaztea du aurten



Antolatzaile, babesle eta laguntzaileak Iurretako udaletxe aurrean eguaztenean, Emakumeen Bira aurkeztu zuten egunean.

helburu, baina hain kalitate handiko txirrindularia beti da irabazteko faborito. Van der Breggenek, aldiz, Fleche Wallone klasikoa irabazi du, eta baita Luxenburgoko Jaialdia deritzen bira ere. Ferrand-Brévot ez da atzean geratzen, eta urte hasieran Errepideko Munduko Txapelketa irabazi zuen Ponferradan (Espainia). Hiru horiekin batera Emma Johansson eta Evelyn Stevensen lana ere gertutik jarraitu beharko da.

Birako etapak

Birako lehen etapa Arrasaten hasi eta amaituko dute ekaina-

ren 12an. Kurtzeta da etapako mendate bakarra. Bigarren etapa Uribe-Butroe amankomunazgoa osatzen duten herrietatik igaroko da. Birritan igoko dute Libao mendatea; azkenekoz, helmugatik zortzi kilometrora. Hirugarren etapa Iurretan hasiko da, ekainaren 13an, 10:30ean. Abadiñotik, Elorriotik, Miñotatik, Matienatik eta Zornotzatik igaroko da, eta, kilometro batzuk geroago, baita Otxandiotik ere. Azken etapa izango da denetan gogorrena; Gontzegarraigane eta Lekoitz mendatea igo beharko dituzte; azkenengo hori helmugatik 6 kilometrora.

ATARIKO ETAPA, ekainak 10
Ibilbidea (erlojupekoa):
- Iurreta-Iurreta (1,9 km)

1. ETAPA, ekainak 11
Ibilbidea:
- Arrasate-Arrasate (96 km)
Mendateak:
- Kurtzeta (bigarren maila)

2. ETAPA, ekainak 12
Ibilbidea:
- Maruri-Fruiz (82,2 km)
Mendateak:
- Libao (hirugarren maila)

3. ETAPA, ekainak 13
Ibilbidea:
- Iurreta-Isturimendi (122 km)
Mendateak:
- Zumeltza (bigarren maila)
- Altamira (hirugarren maila)

4. ETAPA, ekainak 14
Ibilbidea:
- Markina-Markina
Mendateak:
- Gontzegarraigane (hirugarren maila)
- Lekoitz Gane (bigarren maila)

Mallabian, 400 gaztetxo areto futbol txapelketan

Zapatuan eta domekan, 20 taldek jokatu dute

> ARETO FUTBOLA

Mallabia kirol elkarteak gaztetxoaren Mallabia Cup areto futbol txapelketa antolatu du astebururako. Hogei ikastetxetako edo futbol eskolatarako 40 bat talde baturako; guztira, 400 bat gaztetxok parte hartuko dute. Areto futbolaren sustatzea eta gaztetxoaren arteko hartu-emanak sendotzea dira txapelketaren helburuak.

Gaztetxoak hiru mailatan banatu dituzte: benjaminurreko, benjamin eta kimu mailatan. Bihar, 09:30ean, benjamin mailako txapelketa jokatu

dute egun osoan. Domekan, 09:15etik aurrera, benjaminurrekoen txanda izango da; egun berean, 15:30ean hasita, kimu mailako taldeak lehiatuko dira.

Bizkai osoko taldeak etorriko dira, eta horietako asko Durangaldekoak dira: Zornotzako Karmengo Ama, Zaldua, Zaldibarko eskola, Matienako eskola, Abadiño-Zelaietako eskola, Durangoko San Antonio Santa Rita, Durangoko Landako, Durangoko Zabalarra, Berrizko Berrioiz, Atxondoko eskola eta Durangoko Nevers.

Kulturalak nahikoa du berdinketa A Coruñan kanporaketa gainditzeko

Joan zen asteburuan, 2-1 nagusitu zitzaion Deportivo B-ri Tabiran

> FUTBOLA

Durangoko Kulturalak igoera faseko itzuliko partidua jokatu du domekan, 17:00etan, A Coruñan. Gol bateko abantailagaz doa Galiziara. Joan zen asteburuan, 2-1 nagusitu zitzaion Tabiran A Coruñako Deportivo B taldeari.

Beraz, edozein berdinketa nahikoa du aurrera egiteko. Baina etxean gol bat jaso izana ere arriskutsua izan daiteke, kanpoko golekin balio bikoitza dutelako. Galiziarrek 1-0 irabaztea nahikoa litzateke Kulturala

kanporatzeko. Beraz, tentu handiz jokatu beharreko partidua izango da. Gol bat sartzea kanporaketa erdia poltsikoan izatea litzateke, baina ez dago itsusuan aurrera joaterik.

Pasada den domekan, partidu ona jokatu zuten talde biek, eta baloia hanketan dutela jokaldiak kalitatez antolatzeko trebezia erakutsi zuten. Lehenengo zatian, Adrian Abasoloren golak abantaila eman zion Kulturalari, Adrian Mallagarayk ateratako kórner bat errematatu ostean. Neguko merka-

tuan Kulturalera etorri zenetik sartu duen zortzigarren gola izan zen. Ondoren, bigarren gola sartzeko aukera paregabea izan zuten penalti bati esker, baina Mallagarayren jaurtiketa atezainak geratu zuen.

Bigarren zatian, Deportivo B-k aurrera egin, eta berdinketa lortu zuen. Ondoren, Galiziako taldea hamar jokalarigaz geratu zen. Kulturalak aurrera egin zuen, eta 63. minutuan Ekaitz Molinak bigarren gola sartu zuen taldean egindako jokaldi on baten ostean.

Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu dute Durangon

Maiatzaren 31n eta ekainaren 6an neurtuko dituzte indarrak, Landakon



2013an, Uztai taldeko kideak, Txikigym txapelketan.

> GIMNASIA ERRITMIKOA E.A. Datozen bi asteburuetan, Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu dute Durangon. Hilaren 31n, amateur mailakoek eta kadete mailakoek hartuko dute parte, eta, ekainaren 6an, gazte mailako eta senior mailako kirolariak.

Durangoko Uztai taldea izango da Durangaldeko talde bakarra. Bertako kide den Miren

Barturennek dio taldekideen helburua gauzak ahalik eta ondoen egitea dela: "Hainbeste gauza egiten dituztenez, huts txiki bat nahikoa izaten da sailkapenaren goiko postuetatik behekoetara jaisteko", azaldu du.

Kadete mailan, Bizkaiko Txapelketan laugarren sailkatu zen Ane Grandek postu on bat lortu dezake. Senior mailan, berriz, aipatzekoa da Bizkaiko

txapelduna den Ane Tranchok parte hartuko duela. Gainera, taldekako lanean ere maila ona eman du aurten, oro har, Uztai taldeak, kategoria guztietan.

Barturenen ustez, sailkapenak ez du garrantzirik. "Gazteek kirola egitean disfrutatzea da gure helburua".

Ikasturte amaierako erakustaldiagaz amaituko du taldeak denboraldia, ekainaren 13an.

Errege Kopako finala Plateruenean ikusgai

> FUTBOLA J.D.

Athleticek eta Bartzelonak Errege Kopako finala jokatu dute zapatuan, eta Plateruenean zuzeneko emankizuna eskainiko du. Finala pantaila handi batean (sei metro zabal eta bost garai) eskainiko dute, eta Durangaldeko kazetari bik zuzeneko kontakizuna egingo dute bertaraten direnentzat. Finala familiagaz zein lagun kuadrillagaz giro atseginean ikusteko aukera egongo da, eta ez da jan-edanik faltako. Partiduaren ostean, hainbat zozketa egingo dituzte: Athleticen hiru

elastiko ofizial, *Aurten bai* leloa duten beste hiru kamiseta, lau baloi, eta Athleticen eta Bartzelonaren koloreekin osatutako lau bufanda.

Pantaila erraldoiak

Zornotzako Zelaieta parkean eta Elorrioko plazan ere pantailak ipiniko dituzte partidua ikusi ahal izateko. Traña-Matienan, hamasei tabernen artean egitaraua osatu dute. Taberna horietan pintura zuri-gorria egongo da bezeroen eskura; 18:30ean hasita trikitiagaz pintxo-potea egiteko aukera eskainiko dute.



Zale gazteak Plateruenean, Athleticen jokatu dute azken finalean.

Publirreportajea

Maristek heziketa dualean konprometitzen diren enpresetarako ikasle bikainak prestatzen dituzte



Etekin Handiko Zikloen metodologian erreferenteak Euskadin

Euskadiko Lanbide Heziketa modan dago. Jendeak badaki euskal lehiakortasunaren etorkizuna kalitatezko Lanbide Heziketaren eskutik etorriko dela. Eta Maristak ikastetxeak zelan prentsatzen du lortzen dela hori? Euskadiko enpresa sarerako

profesional bikainak hezten, noski! Horretan gabiltza 111 urtean hemen, Durangaldean.

Azkeneko hamar urte hauetan Maristak ikastexean gaur egungo errealitaterako profesionalak hezten ibili gara. Gela barruan lan egiteko moduari buruzko hausnarketa egin, eta aldaketa egin genuen, eta modu berri horri Maristak Learning System deitu genion. Baina esperientzia horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak gudan eta Erkideko beste lau ikastetxe gehiagorengan konfiantza jarri zuen, eta Etekin Handiko Zikloa ezarri genuen iaz. Erabateko aldaketak egin ditugu enpresek eskatzen dituzten kompetentziak lortzeko helburuagaz. Gela etekin handiko tailer bihurtu dugu, ikasleek talde-lanean eman zaizkien erronkei irtenbiderik onena eman behar dizkiete, eta, euren gaitasunak eta kreatibitatea lantzeko aukera izango dute.

Modu honetan lan egin duen lehenengo promozioa enpresetan dabil praktikak egiten martxotik hona, eta bai ikasleen, bai enpresen balorazioa oso ona izan da!



Maristak ikastetxeak heziketa duala urtero handitzeko helburua du

Maristak ikastetxea ahalegin handia egiten dabil, gero eta ikasle gehiagok izan dezaten urtero modalitate honetan parte hartzeko aukera. Lanbide Heziketa modalitate honetan, ikastetxeen enpresetan eta ikastetxeen tartekatzen dira, eta formakuntza kontratu bat egiten da. Baditugu heziketa dualean sinistu eta inplikatzeko dabilen enpresak: Gestamp, Pierburg, Bruss, Plastibor, Garita, Cie Boroa, eLaia, Azterlan...

Enpresa horiek Maristetako ikasleen aldeko apustua egiten dute. Asierrek, Albertok eta Josuk beren esperientzia kontatu digute:

Asier: Oso pozik eta ilusio handiz nabil ikasketok bukatzen; izan ere, enpresan datoren urterako kontratu bat eskaini didate, beraz...

Alberto eta Josu: Maristetan eta Gestampen egindako ikasketak amaitzeaz gaude, heziketa dual modalitatean, eta esperientzia oso positiboa izan da guretzat. Ardura handiak eman dizkigute, bidaiak egin ditugu... Horrek asko motibatzen du, eta, gainera, asko ikasteko aukera eman digu. Oso gomen-dagarria da, sistema bikaina. Guri dagokigunez, eskerrak eman gura dizkiegu Maristak ikastetxeari eta Gestamp.

maristak
Ikastetxea - Durango
etorkizun oso bat
www.maristak.com

Aurrematrikulak Zikloak
Maiatzaren 25etik ekainak 5era

Ezagutu nahi bagaituzu, Deitu eta zita bat eskatu!

- Baxilergoa
- Goi-Mailako Heziketa-Zikloak
- Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak
- Oinarrizko Lanbide Heziketa
- Zikloetarako Sarbide Proba
- Enplegurako Formakuntza

Padel txapelketan batutakoa haurren minbizia ikertzera bideratuko dute

Txapelketa ekainaren 5ean hasiko da, Arripausuetako azpiegiturretan



Fair Play Durangoko Padel Klubak antolatuko du txapelketa.

> PADELA J.D./E.A

Fair Play Durango Padel Klubak padel txapelketa antolatu du, eta batutako dirua haurren minbiziaren ikerketara bideratuko du. Hain zuzen, Galdakaoko ospitalean minbiziaren ikerketa sustatzeko helburuz sortutako marea laranja mugimenduak jasoko du dirua, eta Galdakaon minbiziaren ikerketa bultzatzeko erabiliko du.

Ekainaren 5ean hasiko da txapelketa, eta partidu guztiak

Durangoko Arripausueta kirol instalazioetan jokatuko dituzte. Lau bikotez osatutako ligaxkak izango dira lehenengo; beraz, bi partidu jokatuko bermea izango dute parte-hartzaileek.

18 urtetik gorako edozeinek hartu dezake parte, eta bi kategoria bereiziko dituzte: emakumezkoena eta gizonezkoena. Ezin izango dute 32 bikotek baino gehiagok parte hartu. Maiatzaren 29an, eta ekainaren 1ean, 2an eta 3an eman ahalko da

izena, Abadiñoko Eroski saltoki-gunean, 19:00etatik 21:00etara. Izen ematea pertsonako 12 euro izango da gutxienez, eta hortik aurrera bakoitzak nahi duena eman ahalko du.

Iaz ere antolatu zuten honen antzeko txapelketa bat, eta, kasu hartan, Durangaldean baliabide urriak zituztenentzat bideratu zuten bildutako dirua, Gurutze Gorriaren bitartez. 1.660 euro inguru lortu zituzten iazko ekitaldian.

Triguerosen Munduko Trail Txapelketa du bihar

Frantzia jokatuko du 87 kilometroko proba

> TRAIL J.D.

Abadiñon bizi den Silvia Triguerosen (Durango Kirol Taldea) Munduko V. Trail Txapelketan parte hartuko du bihar. Espainiako selekzioak lehenengo zeramango du taldea txapelketara, eta emakumezkoen taldea osatzeko hautatu dute Trigueros. Uxue Fraile, Maite Mayora eta Teresa Nimes izango ditu taldekide Frantziako Anancy herriaren eta izen bereko lakuaren inguruko ibilbide gorabeheratsuan. Antolatzaileen arabera, 39 herrialdeetako korri-

kalariak batuko dira, inoizko gehien.

Ibilbide gorabeheratsua

Lasterketak 87 kilometro izango ditu, eta parte-hartzaileek 5.300 metroko desnibel positiboari aurre egin beharko diote. Ibilbide osoa mendi bideetatik egingo dute, eta 1.700 metroko garaieratik gertu dauden Semnoz, Roc Lancrenaz eta Mont Baron mendateak zeharkatu beharko dituzte korrikalariak. Emakumeetan Emma Bristow izan zen iazko txapelduna.

Zapatuan, gaztetxoentzako igeriketa jaia Astolan

> IGERIKETA J.D.

Abadiñoko Astola igeriketa taldeak denboraldi amaierako igeriketa jaia egingo du zapatuan, 17:30ean, Astolako igerilekuan. Igeriketa ikastaroak egiten ibili diren 5 eta 10 urteko gaztetxoek

parte hartzeko gonbita luzatu diete. Gaztetxoek igeriketa kirol erakargarria dela erakustea eta taldera erakartzea da ekimenaren helburua. Jaia amaitzeko, jolasen ostean, sari banaketa egingo dute.



lazio igeriketa jaiko irudi bat.

Txomin Marañon bigarren, Pagoeta mendi lasterketan

> MENDI LASTERKETA J.D.

Durangaldea Running taldeko Txomin Marañonek bigarren tokian amaitu zuen joan zen domekan Pagoeta eta Zarautz inguruan jokatutako mendi lasterketa. Lesio batetik irten berri dela kontuan izanda, emaitza oso ona da durangarrentzat. Igor Mancisidor irabazlearengandik 1.20 minutu helmugaratu zen honako denbora honetan: 1.07.26.

Euskal Asteko zesta-punta txapelketa abian

> ZESTA J.D.

Abian da XIV. Euskal Astea Zesta-punta Txapelketa Ezkurdiko pilotalekuan. Lehen jardunaldian Azkarate eta Alberdi durangarrek 27-30 galdu zuten Mutrikuko Lander eta Andonegiren aurka. Zapatuan, 18:00etan, Durangoko Urrejolak eta Abadek Goenagaren eta Gandiagaren aurka jokatuko dute. Markinako eta Berriatuko bikote bana ere lehiatuko dira.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Norabidea eta helburua

Kirolaren onurak beti aldarrikatu ditut, foro honetan nahiz beste hainbat tokitan, baina, egun, eskola kirol monitore, irakasle zein guraso moduan egokitu zaizkidan roletan, susmoa dut orokorrean ez gabiltzala gauzak era egokian egiten.

Zergatik? Gazteen artean zabaltzen dugun mezu nagusia garaipenarena delako. Irabaztea dugu lehen eta azken helburua, eta, lortzen ez denean, frustrazioa hedatzen da entrenatzaile zein jokalarien artean, baina, batez ere, gurasoen artean.

Garaipenaren izenean, momentu horretan jokalaririk onenak zelairatzen ditugu, batzuk jokatu barik utziz, askotan eskola kirola zertarako dagoen, gazteek zertarako entrenatzen duten eta besteekin batera ere goza daitekeela ahaztuz; gure benetako helburua, gazteak heztearena, benetan landu barik.

Azken hilabeteetan nazio mailako bi torneotan egoteko aukera izan dut. Bertan, Durangoko 10 urtez azpiko neska-mutilak Elorriokoekin batera aritu dira. Batera diot, hasieran bakoitzak bere taldea bazuen ere, gero elorriarrek jokalaria gutxi izan, eta gure beharra izan zutelako. Beharra, jokatzeke, bestela, jokatzea ezinezkoa zuten. Laburbilduz, durangarrek ez zuten inolako oztoporik jarri nahasturik jokatzeke, ezta elorriarrek ere. Elkarrekin jokatzeke nahi zuten, jokatzea zelako beraien helburua, nahasturik, bai, noski.

Gazteek irakaspen handia eman didate, gure garaiko eztabaidak bertan behera utziz. Garaipenaz gozatzeko, aurretik hamaika aldiz galdu behar da, baina elkarrekin jokatuz beste gauza batzuk irabazten dira, agian inportanteagoak direnak!

Chimeneas
Cerámicas **MACOBER**
Sanitarios

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa


clínica dental **hortz klinika**
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmodurangesado.com
inmodurangesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550 euro hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. 125.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Eremu onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekotako apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komun 2 eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Eremu egokia.
- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Sarreran arku ederra. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursaila. Txaleta. Abeletxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- DURANGO: Txaleta. Lorategia. Igerileku klimatizatua. Ikuspegi ederrak. Informazio pertsonalizatua.
- ATXONDO: Mariza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Inguru ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ZABALE



- Bizitzin sartzeko moduan. Etxe osoa kanpora begira dago. 99 m2. 4 logela, egongela, sukaldea esekitokiarekin eta komun 2. Balkoia. Garajea. **290.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

SAN IGNAZIO



- 90 m2. 50 m2-ko terraza. 3 logela, egongela handia balkoiarekin, sukaldea esekitokiarekin eta komun 2. Garajea eta trastelekua. **290.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

ASKATASUN



- 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia, despentsa eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua. Ikuspegi ederrak. **268.000€.**

J.A. AGUIRRE



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Balkoia. Garajea eta ganbara handia. **259.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

ATXONDO



- Txaleta adosatua. 60 m2-ko lorategia, txokoa eta garajea. 5 logela, komun 2 eta bainugela. Erdi berria. **340.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

ZALDIBAR



- Etxebizitza bakarrekotako txaleta 620 m2-ko lursailan. Beheko solairuan 3 logela, estalitako etxabe gardena, 2 autorentzako garajea, trastelekua eta txokoa erdisoan. Hobekuntza askorekin. Hegoaldera begira. **385.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

www.inmodurangesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta komun 2.
- ARAMOTZ: Halla, 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 3 komun. Terraza. Trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, 3 logela eta komun 2.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta despentsarekin.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- KOMENTU KALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN INGAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lokal komertziala.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.

ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela. Despentsa. Balkoia.
- ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ZELETABE: Berriztatzeko.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

AUKERA

- MIKELDI: 3 logela eta egongela. Eguzkitsua. Igogailua. 130.000€.
- BERRIZ: 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza. 128.000€.
- F.J. ZUMARRAGA: 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 120.000€.
- ARAMOTZ: Logela 2. 85.000€.
- ALDE ZAHARRA: 3 logela. Igogailua. 126.000€.
- ANTZO ESTEGIZ: 99 m2. 3 logela eta egongela. 30 m2-ko terraza. Igogailua. 145.000€.
- ALDE ZAHARRA: 3 logela. Igogailua. 126.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza. Trastelekua eta garaje itxia. 249.000€.
- ALLUITZ: Apartamentua. Logela 2, sukalde-egongela. Ganbara. 141.000€.
- S. INAZIO: 3 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Trastelekua eta garajea. 239.500€.
- ASK. ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara eta garajea. Etxe osoa kanpora begira dago. Eguzkitsua. 260.000€.
- LEHENDAKARI AGIRRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta esekitokia. Ganbara eta garajea. 259.000€.
- MATIENA: 120 m2. 3 logela eta 2 komun. 150.000€.
- ABADIÑO: 90 m2. 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza. Ganbara. Garaje itxia. 199.000€. Prezio negoziagarria.
- SASIKOA: 3 logela, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia aukeran. 206.000€.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza. 179.000€.
- M. TORRE: 3 logela, komun 2 eta esekitokia. Terraza. Ganbara. Garajea.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara. 174.000€.
- BERRIZ: B. Gabiola. Erdi berria. 3 logela, komun 2 eta egongela. 180.000€.
- ZABALE: 4 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Garajea.
- ARANDOÑOTORRE (musika eskola ondoan): 130 m2. 4 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Garajea. Solariuma. Eguzkitsua. Bizitzin sartzeko moduan.
- MONTEVIDEO: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Igogailua. 150.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garaje itxia.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 173.000€.
- ANBOTO: 3 logela, komun 2 eta egongela. Igogailua. Berriztua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta komun 2. Terraza. Garajea aukeran. 186.000€.
- FKO. IBARRA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea.
- GARAI: Txaleta. Adosatua. 300 m2. Txoko-garajea.

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- DURANGO: 160 m2. Okindegia. Alokagai, erosteko aukerarekin. 220.000€.
- IBAIZABAL: 51 m2. Egokitua. 590€.
- J.M. ALTUNA: 50 m2. Komertziala. 500€.
- PARKEAN: 60 m2. Fruitategia. 600€.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 31n, 12:15ean, Zornotzako Bernagoitia auzoko San Migel elizan

Driss El Maloumi

Marokoko Agadir hiririk datorren musika taldea da Driss El Maloumi hirukotea. Oud izeneko musika tresna jotzen duen Driss El Maloumi da taldearen ahots nagusia, eta Haucine Baqir eta Saïd El Maloumi perkusionistek lagunduta ariko da Zornotzako Eleizetan musika zikloaren barruan kontzertua eskaintzen. Aurtengo zikloa ixten, hain zuzen.

Antzerkia

:: DURANGO

MAIATZAREN 29an eta 31n

19:00etan, 'El mesón de los suspiros', San Agustinen.

:: ELORRIO

EKAINAREN 5ean

22:00etan, 'Amodioaren ziega', Arriolan.

:: MALLABIA

MAIATZAREN 29an

22:00etan, 'Ta oain ze?', kultur etxean.

Ekitaldia

:: ATXONDO

MAIATZAREN 30ean

Atxondok AHTari ez eguna. 10:00etan, mendi martxa. **Eguerdian**, kalejira-poteoa. **15:00etan**, herri bazkaria eta musika. **17:00etan**, amaiera ekitaldia.

:: IURRETA

MAIATZAREN 30ean

Ezgaitasun Eguna. 11:00etan, umeentzako jolasak. **13:00etan**, Mikel Deuna dantza taldearen emanaldia. **14:00etan**, herri bazkaria. **16:00etan**, erromeria, Lotxogaz. **19:00etan**, bertso-poteoa.

Lehiaketa

:: ELORRIO

EKAINAREN 30era arte

Ferixa Nausiko jaien kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lehiaketaren oinarriak: 'www.elorrio.net'.

:: ZALDIBAR

MAIATZAREN 22ra arte

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Maiatzaren 22ko 15:00ak arte aurkeztu daiteke udaletxean.

Kontalaria

:: DURANGO

MAIATZAREN 30ean

12:00etan, Dorleta Kortazar, Udal Liburutegian.

:: IURRETA

MAIATZAREN 29an

20:00etan, Miguel Ángel Montillaren 'La casa de la memoria', Herri Bibliotekan.

Musika

:: DURANGO

EKAINAREN 6an

20:30ean, The Prowlers + Grade 2 + Olddarkor + Smoking Barrels, Plateruenean.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 29an

22:00etan, Ángel Stanich, Arriolan.

:: MALLABIA

MAIATZAREN 29an

23:00etan, Black Redding, Herriko Tabernan.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN 29an

19:00etan, Zubiatur musika eskolako emanaldia, Zelaletan.

MAIATZAREN 31n

12:15an, Driss El Maloumi, Bernagoitiko San Migel elizan.

EKAINAREN 3an

19:00etan, Zubiatur musika eskolako flauta eta akordeoi ikasleen emanaldia, Zubiatur musika eskolan.

EKAINAREN 5ean

19:00etan, Zubiatur musika eskolako analisisiko taldeen kontzertua, Zelaletan.

Euskal Astea

:: DURANGO

MAIATZAREN 29an

19:30ean, Peterren Omenezko VI. Esku Pilota Jaialdiko finalerdiak, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

20:00etan, Ana B. García organista eta Amaia Arberas sopranoa, San Fausto elizan.

MAIATZAREN 30ean

18:00etan, XIV. Zesta-punta Txapelketa, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

MAIATZAREN 31n

18:00etan, Tabira Musika Bandaren kalejira.

19:00etan, Tabira Musika Banda + Silboberri banda + Durangoko Orfeoia, Andra Mariko elizpean.

EKAINAREN 1ean eta 2an

10:00etan, 'Irakasle gaiztoak' antzerki emanaldia, San Antonio-Santa Rita ikastetxean.

EKAINAREN 3an

09:30etik 11:45era, 'Industriaren parkea', Ezkurdi plazan.

20:00etan, 'Asiako zeruetatik' mendi erreportajea, Plateruenean.

EKAINAREN 5ean

18:00etan, Esku Pilota Eskolako Haurren XXV. Txapelketako finalak, Ezkurdi pilotalekuan.

19:30ean, Durangoko txalaparta, alboka, trikiti eta pandero eskolak eta Sugarri fanfarrea, kalejiran.

Erakusketa

:: DURANGO

EKAINAREN 14ra arte

Raquel Fernández Santosen 'Espazioa paper bezala', Arte eta Historia Museoa.

Ikastaroa

:: ABADIÑO

EKAINENKO ASTELEHENETAN

17:45etik 20:15era, clown ikastaroa, Mariano Di Francoren eskutik, Errota kultur etxean. Izen-ematea, 'clownlunes@gmail.com'.

Berbaldia

:: ELORRIO

EKAINAREN 3an

19:00etan, 'TTIP: Nora garamatza merkataritza libreko akordioak?', Iturri kultur etxean.

:: MALLABIA

EKAINAREN 3an


19:30ean, Jakoba Errekondo, kultur etxean.

Errezitaldia

:: DURANGO

EKAINAREN 3an

19:00etan, Mikel Antzaren 'Ametsak ere zain', Hitz liburu dendan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Tomorrowland

- **barikua 29:** 19:30/22:00
- **zapateria 30:** 19:30/22:30
- **domeka 31:** 19:00/21:30
- **astelehena 1:** 18:30/21:00
- **martitena 2:** 20:00

Asterix. La residencia de los dioses

- **zapateria 30:** 17:00
- **domeka 31:** 16:45

2. ARETOA

Dando la nota. Aún más fuerte

- **barikua 29:** 19:30/22:00
- **zapateria 30:** 19:30/22:30
- **domeka 31:** 19:00/21:30
- **astelehena 1:** 18:30/21:00

Tomorrowland

- **zapateria 30:** 17:00
- **domeka 31:** 16:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

La familia Bélier

- **zapateria 30:** 22:30
- **domeka 31:** 20:00
- **astelehena 1:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Suite francesa

- **barikua 29:** 20:15
- **zapateria 30:** 19:30/22:30
- **domeka 31:** 20:00
- **astelehena 1:** 20:15

Minúsculos: el valle de las hormigas perdidas

- **zapateria 30:** 17:00
- **domeka 31:** 17:00

VI. BERRIZKO MARTXA ZIKLOTURISTA

EKAINAK 7 9:00 tan (Udaletxean)

120 kms

Federatuak 15 €
Bakarrik txirindularitza federazioko lizentziekin

Federatu gabeak 25 €
Asegurua barne

Web bidez 10 € / 20 €

www.berrizbizikletanetelkartea.com

> BOTIKAK**BARIKUA, 29**

09:00-09:00

Navarro

Artekalea 6 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria**Isabel-Guarrotxena, Javier**

Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ZAPATUA, 30

09:00-09:00

Irigoien

Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-13:30

Unamunzaga

Muruetatorre 2C - Durango

Mugica

Andra Maria 9 - Durango

De Diego

Inixaurren 22 - Durango

Sagastizabal

Askatasun etorb. 19 - Durango

Bazan Diaz

Urribarri 5 - Durango

Navarro

Artekalea 6 - Durango

Campillo

Montevideo etorb. 24 - Durango

Balenciaga

Ezkurdi plaza 8 - Durango

Bartolome

Gabiola 2 - Berriz

Larrañaga-Balentiaga

Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

Guarrochena, Lide

Bide Zahar 14 - Zornotza

Melero, Rosa Mari

San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria**Isabel-Guarrotxena, Javier**

Txiki Otaegi 3 - Zornotza

DOMEKA, 31

09:00-09:00

Unamunzaga

Muruetatorre 2C - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria**Isabel-Guarrotxena, Javier**

Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ASTELEHENA, 1

09:00-09:00

Etxebarría

Montevideo etorb. 2 - Durango

Guarrochena, Lide

Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 2

09:00-09:00

Balenciaga

Ezkurdi plaza 8 - Durango

Guarrochena, Lide

Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 3

09:00-09:00

Navarro

Artekalea 6 - Durango

Guarrochena, Lide

Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego

Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 4

09:00-09:00

Sagastizabal (Askatasun

etorb. 19 - Durango)

Guarrochena, Lide (Bide

Zahar 14 - Zornotza)

09:00-22:00

Sarasketa, Diego (Luis

Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> ZORION AGURRAK✉ zorionak@anboto.org
eguaztieneko 14:00ak arteko epea

> Ekainaren 2an, Iurretako **Aitziber Murgotiobeñak** urteak beteko ditu. Zorionak bere familiaren eta lagunen partez.



> Ondo pasau zure eguna, eta urte askotarako! Zorionak zure familiaren partez, eta gora Kamiñazpi!



> Zorionak, **Marian!** Carmelok diotso: "Zeruan ez dago burua zugarik zenbat aldiz galdu dudana kontatzeko beste izar".



> Nire lehengusu **Ametsek** ekainaren 3an 4 urte beteko ditu. Zorionak Amets! Ederto ospatuko dugu, muxu asko zuretzat!



> **Maiatzaren 27an** 7 urte beteko ditu Uxuek. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko danon partez!



> **Leok** egun osoa txisteak kontatzen pasatzen du. Zorionak Kamiñaspitik eta Matienatik!



> Zorionak bikote! **Maitzaren 27an** 37 urte ezkondu zinetela. Euskal Herriko amama eta aitxitxe jatorrenak zarete! Naroa eta Amets.



> **Nahia García Camposek** ekainaren 25ean 4 urte egingo ditu. Zorionak aita, amatxu eta zure arrebaren partez!



> Zorionak **Alaitxu!** 6 hilabete konturatu orduko! Zorionak berriz eta mosu handi bat zure, osaban eta izekon partez!



> Gure **Laiak**, zapatuan, maiatzaren 30ean 9 urte beteko dauz. Zorionak ahiztatxo! Primeran pasa zure eguna! Muxu potolo-potoloak Iharar eta Alaitzen partez!



> Zorionak **Jabier Ariznabarreta**, zure anai-arreben partez!




> Pasa dan domekan **Joanesen** urtebetetzea izan zan, eta zapatu honetan Aittittena. Zorionak eta ondo pasa etxeko danon partez.



> 2014-2015 denboraldia bukatzeko eta taldea utziko duten jokalariei agur esateko, partidua jokatu zuten Gu Lagunakekoek. Egungo jokalariek eta jokalaririk ohiak elkartu ziren.



> Zorionak **Luca!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



IZEN EMATEA

Maiatzaren 25etik - Ekainaren 5era



MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Mekatronika Industrialia
Robotaren muntaiaz eta mantentzeaz arduratzen dira

Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energia hornitzeaz arduratzen dira

Jakinarazi etorriko zarela! **943 71 21 91**

“Euskara maite dut, eta berori zaintzeko duzuen modua ere bai”

Abadiñon egon da Donal Mc Grath irlandarra, lagunak bisitatzen; euskara ikasten dabil Corken

> AKUILUA Markel Onaindia Euskal Herriaz maitemindutako irlandar bat da Donal Mc Grath. Abadiñar baten bisita jaso zuen etxean duela hamabost urte, eta geroztik hartu-eman oso estua dauka gure herriagaz. Hainbat lagun egin ditu, eta Abadiñon kasik etxekoa bezalakoa da, urtero etortzen da bisitan. Gainera, Sinn Féin alderdiko kidea denez, hartu-eman politikoak lantzeko ere aprobeztatzen du. Bixia badirudi ere, irlandar honek euskaraz daki, eta gero eta hobeto erabiltzen du.

Zelan hasi zinen Euskal Herriaz maitemintzen?
Duela hamabost urte, Amaia, Abadiñoko neska bat, nire etxera etorri zen ingelesa ikastera. Behin, telebista ikusten geundela, Belfastoko martxa orangistak eman zituzten. Berak esan zidan bere herrian ere antzeko egoerak bizi zituztela, eta nik zera galdetu nion: “Espainian?”. Euskal Herrikoa zela erantzun zidan. Euskal Herriaz berba asko egin genuen. Gero, Amaiak bere etxera gonbidatu ninduen; familia ezagutu nuen, eta horrela sortu zen konexioa. Gero, gainera, bere ahizpa Olatz etorri zen nire etxera. Gainera, Corken Euskal Herriaren aldeko komitea sortu genuen.

Eta, Irlandan bizita, euskara zelan ikasi duzu?
Lehenengo, kasete batez eta Internet bidez hasi nintzen, eta hona etortzean praktikatu egin nuen. Baina, iaz, Corkeko unibertsitateko Ikasketa His-

panikoetako Sailean eskaintako euskara eskoletara joaten hasi nintzen. Astero ordu biko eskola izaten da, eta lau lagun gabiltza. Oso pozik nabil; aurtentzen Korrika ere egin dugu!

Zer gustatzen zaizu gehien Euskal Herriatik?

Kultura maite dut, batez ere tradizionala, eta herri kirolak ere bai. Olinpiada eskaldun eta irlandarrak antolatu izan ditugu, adibidez. Euskara maite dut, eta berori zaintzeko duzuen modua ere bai. Gustatuko litzaidake guk berdin egitea; maila txikiago batean bada ere, gu ere bagabiltza saiatzen. Bestetik, jatekoa ere gustatzen zait, batez ere etxean eginikoa. Nire sukaldaritzan txertatu ditut hemengo jaki batzuk.

Eta jendea zelan ikasi duzu?

Euskaldunak oso atseginak dira, eta euskara jakitea abantaila da niretzat.

Zer leku edo herri da zuretzat bereziena?

Abadiño, inguruko mendiengatik. Beran ere egon naiz, eta mendien paisaia oso polita da. Baina Abadiño da niretzat bereziena.

Zelan ikusten duzu Euskal Herriko egoera politikoa?

Nire ikuspuntutik, egoera politikoa zaila da. Espainiako

Gobernuak ez du hitz egin nahi, eta errepresioagaz jarraitzen du. Baina uste dut euskal politikariek badaukatela estrategia, eta egunen batean martxan

ipini ahalko dutela. Edozelan ere, nazioarteko laguntza beharrezkoa izango da.

Irlandako politikagintzan, ostera, zer egoera bizi du Sinn Féin alderdiak?

Momentu honetan, Sinn Féin indarra hartzen dabil Irlanda Hegoaldean. Herritarrei begirako proiektu bat aurkeztuko dugu, eta, datozen hauteskundeetan, azaroan seguruenik, irabazteko aukera edukiko dugula uste dut. Iparraldeko sei konderrietan, egoera zailagoa da. Britainia Handiko Gobernuak eta unionistek murrizketak ezarri gura dituzte, eta Sinn Feinek ezetz esango du. Aurrekontuak ez badira onartzen, baliteke parlamentua blokeo egoeran sartzea, eta hori Sinn Féinen kaltetan nahita egiten dabilta.

Gerry Adamsek eta Charles printzeak eskua eman zioten elkarri joan zen astean...

Gainerako alderdiei gu bakearen alde lan egiteko prest gaudela erakusteko keinu bat izan zen.

Independentziaren aldeko altxamenduaren mendeurrena gogoratuko duzue datozen urtean.

Oso berezia izango da. Kontrako alderdi politikoak beldurtuta daude. Beldur dira jendea irlandarrok zergatik gauden banatuta galdetzen hasiko ote den. Eurentzat ez da erraza izango azalpenak ematea eta mendeurrena gogoratzea.



LAUHORTZA

JON ARTZA
Soziologoa



Galtzaileak

Dagoeneko hauteskundeetan biharamuna pasatzen ari zaigu. Emaizten gainean ez noa azterketa sakonik egitera, karaktereen diktadurak esan nahiko nituzkeenak asko mugatuko luke eta, gainera, ez dakit azterketan ere sobera asmatuko nukeen.

Lerro hauen bitartez galtzaileez oroitu nahi nuke, galtzeak kontsolamendu eskasa duelako, eta horietako bat zure porrota norbaitek aintzat hartzea izan litekeelako.

Hala ere, galtzaile guztiak ez dira berdinak. Galtzailea izan daiteke urteetan zehar sarri irabazi duena, harro jokatu eta azkenean galtzea tokatzen zaiona. Galtzailea izan daiteke, ezer jokoan jarri gabe, ahalegin handirik egin ez eta irabazi ez duena. Baina horiek benetako galtzaileak al dira? Nire ustez, ez. Galtzailea da, ilusio handiz, lan ikaragarria eginez, familiarekin egoteko astirik gabe, norbere aisialdiari uko egin eta proiektu baten alde konprometitu eta irabazi ez duena. Galtzailea da azterketa garaian ikasteari eskaini beharreko denbora asko proiektu berberaren alde erabili duena. Igan-dean, azkenengo garagardoa hartu, eta hurbilekoen animoak jaso ostean, etxera burumakur joan zena. Ohera sartu eta ezin egonean, biharamunean apunte eta liburu guztiak hartu eta ekaineko etsaminak prestatzen hasi behar zuela pentsatzen hasi zena. Horrela jokatzeko duenari sarri tokatuko zaio galtzea, baina beste modu batera jokatu gero, sekula ez da irabazle sentituko.



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala



MATRIKULA



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

Beste jarduerak batzuk:
kultur ekitaldiak, irteerak...

Matrikula egiteko ordutegia:
Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika
- Ingelesa, frantsesa, euskara (hasiera-maila)

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Ekainaren 15etik 30era eta Irailaren 1etik 15era